



ARGIA

TRENARI BAI,
AHTRI EZ!!

¿DÓNDE ESTÁ LA
PARTICIPACIÓN?



AHT Nafarroan

**Eliteak lotu eta
herriak banandu**



ZULOAN

Bidaia bat AHT
eta lan-esplotazioan
barrena

Urko Apaolaza Avila

Aurkezpen hitzaldia
abenduaren 12an
Donostiako Kaxilda
liburu-dendan
(Arroka kalea 2, behea)
19:00

14 €

ARGIA
// LIBURUAK //

AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

www.argia.eus/denda | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Prekarizazio basatia sustatzen Grezian

IRITZIAK

- 17 Asier Blas
- 18 Andoni Mujika
- 19 Iñaki Antiguada
- Leire Narbaiza Arizmendi
- 20 David Bou



'Besamotzak' diskoa kaleratu du musikan ia 40 urteko ibilbidea daraman Joseba Tapiak. Luze hitz egin dugu harekin. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA: ASSA TRAORE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: IDOIA ZABAETA / ARGAZKI PRESS

SAKONEAN

- 12 | Joseba Tapiak: "Guk kultutzat ditugun tresna asko larreko ikusten dira beste tokietan" / Miel A. Elustondo
- 22 | AHT Nafarroan: Abiadura handiko mamua / Xabier Letona
- 28 | 155 Kodea: Demokrazia interruptus / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 31 | Araotz, hiru muskerren topaleku bakarra / Iñaki Sanz-Azkue
- 34 | Mikel Zalbide: "Arnasguneetan ez da eztabaidatzen zer hizkuntzatan egin behar den" / Onintza Irureta Azkune
- 36 | Gure errepublikaren alde / ARGIAko lantaldea
- 38 | Irantzu Abad: "Hanka galdu dugun pertsona orok izan beharko genuke ordezkia jartzeko eskubidea" / Eider Madina
- 44 | Aritz Branton: "Zaila da ohiturak aldatzea, baina libururu elektronikoak abantaila nabarmenak ditu" / Lander Arretxea

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.

Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza.

Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador.

Argazkilaria: Dani Blanco.

Produkzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Interneten: www.argia.eus

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel.: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetzak: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus

ARGIA KIDETZA:

Harpidetzari lotuta egon beharrean, kidetza ARGIAren proiektua indartzera dago lotuta. Kideek, egokitzen duten ekarpen ekonomikoak eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



PANORAMA

Helduleku bat zulo beltzean

Errefuxiatuen krisiak ez du etenik, komunikabideetan haren oihartzuna apaldu bada ere. Mediterraneo munduko hobi komunik handienetakoa da. Inoiz ez dugu jakingo zenbat lagun ito diren itsasoan, bizimodu hobe baten bila. Errefuxiatuen krisiari aurre egiteko, Europar Batasunak mugen kontrolera bideratu du indar guztia, polizia eta militarren presentzia handituz. Baina, zorionez –mugez, legez eta jurisprudentziaz harago– badira pertsonengan arreta jartzea nahiago duten herritar eta eragileak. Irudian: *Lifeline* salbamendurako itsasontzia Libiako kostalde inguruetan. *Maydayterraneo-Aita Mari Zubia* proiektuaren parte da, besteren artean, Gipuzkoako SMH boluntario taldeak sustatutakoa.

Argazkia: Santi Donaire - Testua: Axier Lopez



Azaroaren 27an, hondeamakinak itzuli ziren Tosura (Getxo), Udalak bertan egin nahi duen parkingaren obrei berrekiteko. @Tosu_Betirako twitter kontuak kontatu du:

“Langileak Tosura bueltatu dira eta hondeamakina sartu dute. Hesigune berria prestatzen daude landa osoa hartzeko”

“Zulakariak lubakia egiteari berrekin dio. Gu oztopatzera goaz. Kide bat kateatu da makinak geldiaraziz. Ertzaintza kateatuta zegoen laguna askatzen saiatzera etorri da”

“Kateatutako kidea askatu egin da bere kabuz. Hala ere, bihar epaiketa azkarra daukate 10etan berak eta identifikatuak izan diren beste bi lagunek”

“Obrak berriro hasi dira, baina oraingoan be partida ez da amaitu! Abenduak 16an parkinga gelditzea posiblea dela erakutsiko dugu”



Parisko erraustegi baten arduradunak epaitzen ari dira

Zero Zabor
@zero_zabor

Abenduaren 11 arte epaitzen ari dira Paris metropolitanoko Melun herriko erraustegiaren arduradunak, inguruko herritarrek dioxinaz kutsatzeagatik. 2002an gobernuak itxi behar izan zuen erraustegia. 165 herritarrek salatu dute beren minbiziak erraustegiak eragin dituela.

16 urteko lanak kostatu zaizkie, baina lortu dute: azkenean Parisko auzitegi batean epaitzen ari dira Vaux-le-Pénil erraustegi kutsatzailearen jabea den Melun herri elkargoa (mankomunitatea). Mankomunitateko arduradunek erantzukizunei iskin egiteko argudiatzen zuten 2002an erraustegia itxiaraztearekin batera eten zutela mankomunitate zaharra ere, eta oraingoak ez duela zerikusirik harekin. Epaipeak herritarrei eman diete

arrazoi ordea, auziarekin jarraituz.

1979an eraikitako Vaux-le-Pénil erraustegia baimendutakoa baino 1.700 aldiz dioxina gehiago isurtzen zuela aurkitu zuten 1998an egindako ikerketan. Prefetak arduradunak ohartarazi zituen, baina 2002an dioxinen kutsadura maila iritsi zen onartuen 2.200 halako izatera. Gobernuak 2002an itxi arazi zuen planta, mankomunitateak bere burua desegin zuen eta beste mankomunitate bat sortu erraustegi berri bat abian jartzeko, gaur oraindik martxan dagoena.

Epaiaketa bultzatu dutenen artean dago erraustegiaren ondoko Mancy herrian urte haietan alkate zen Pascale Coffinet. Borroka egitea egokitu zitzaion inguruko baserrietako oilategietako arrautzak analizatu zituzten, dioxinak pilatuta zeramatatzela aurkituz. “Inguru honetako etxalde bateko behi guztiak ere hil behar izan zituzten kutsaduragatik”, argitu dio *Le Parisien* egunkariari.

“Putazaleek isiltasuna erosten dute”

AMELIA TIGANUS, PROSTITUTA OHIA

Jaiotzez errumaniarra, tolosaldean bizi da Tiganus: “Dirua kentzen dizute eta kokaina eta alkohola kontsumiarazten. Menpeko bilakatzen gaituzte, indarkeria horri guztiari aurre egin ahal izateko. Gizarteak prostituzioaren errealitatea ikusteko duen ezintasunak gogoa piztu zidan nire historia kontatzeko; askotan fribolizatu egiten da eta, beste askotan, egia hori existituko ez balitz bezala jokutzen dugu. Ez naiz epaitua sentitu, nire burua kulpatik eta arduratik askatu nuelako. Ulertu nuen ez nintzela ni zama hori bizkar gainean hartu behar zuena, beste batzuk baizik: estatu proxeneta; gizartearen isiltasun konplizea; sexu-indarkeriagatik ordaintzen duten putazaleak; eta noski, gure gorputzekin aberasten diren proxenetak”. **TOLOSALDEKO ATARIA (2017-11-25)**



FAUNA PUBLIKOA

“Euskara lan-oztopoa ez izateko beharrezkoa da Jaurlearitzak hizkuntza eskakizunak berriz hausnartzea (...) Euskarak ez gaitu ez irundarrago, ez euskaldunago egiten”

Muriel Larrea,
Irungo PPko kidea (Antxeta Irratia)

Obsesio identitario



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Funeral batean txiste-kontari hasten den pertsona batek eta Muriel Larrea Irungo PPko kideak antza dute gauza batean gutxienez: momentu aproposa aukeratzeko modu partikular samarra dute biek. Euskararen Eguna dela-eta egin dituen adierazpenek minutu bat irauten dute juxtu-juxtu, baina tiro-sortak kalibre lodiko metraila barreiatzen du normalizazioaren lubakian kuzkurtuta daudenen kontra. Ahobizi, Belarriprest, jantzi gerrarako kaskoak.

Batetik korroska dator demanda politikoa, lanerako ezinbestekoa den gaitasunetako bat oztopo gisa ulertzen duenez gero. Ez da harritzekoa, dena esan behar bada. Atzamarra erabiliz kargu publikoak adjudikatzeko ohitura galdu ez duen partidu bateko kide gisa, Larrearentzat hizkuntza eskakizunak baldintza exotiko samarra izango dira segur aski, tokatzen zaionari lanpostua zuzenean eman ordez merituekin eta txorrada horiekin gauzak konplikatzeo era bat. Bihar galde dezake: “Baina zuk zer nahi duzu, mediku ona ala mediku-titulua daukana?”.

Bestetik herrena da deklarazioa, inor *irundarrago* edo euskaldunago egiteaz ari denean. Benetan, uste dut bada-garaia PPko kideek beraien obsesio identitarioak alde batera uzteko. Bada garaia PP kezka dadin irundarrei eta euskaldunei benetan inporta zaizkien gaiez. Badute garaia nazionalismo periferiko hori alboratu eta euren proposamen politikoak klabe demokratiko eta europarretan emateko –eta biolentzia kondentatzen badute, hobe–.

Baina paraje hauetako aurrekontuak onartzearen truke lortu dutenez botoek eman ez dieten protagonismoa, ba hone-lako adierazpenak entzuten segi beharko dugu, mezuaren hartzaileak genuflexiorik egingo ez duen esperantzarekin.

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



**DM! DURANGOKO
MASOKA**

HAU
GOZA-MINA!



ADUR

ANALISIA



Zergatik emango ditu hainbeste arazo euskarak, ezta, Izquierda-Ezkerra?



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Euskaldunontzat larria da zerrenda bakarren gaian Nafarroan Izquierda-Ezkerrak hartutako jarrera. Gaur egun funtzionario izan nahi duten irakasleek bi zerrenda dituzte Foru Erkidegoan. Erdalduna osoa da eskubideetan: badu bere zerrenda, aurkezten da eta listo, merituek emango diote toki bat funtzio publikorako irakasleen zerrendan. Euskalduna ez, hura zatitua da eskubideetan, bi zerrendetan egon nahi badu, bi azterketa egin behar ditu, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.

Euskara Nafarroa osoan eskubideetan gaztelaniaren parean egonez gero, logikoa litzateke ariketa praktikoetan ere biak parean egotea. Hau da, zerrenda bakar bat izatea denontzat –hala da estatu osoan– eta bakoitza bere merituekin aurkeztea: euskarari dagokion puntuazioa emango litzaioke, ingelesa edo beste ezagutza maila batzuei ematen zaien gisan eta kito.

Baina ez, UPNk, PPK, PSEk eta I-Ek ez diote euskarari gaztelaniaren balore berdina eman nahi eta, beraz, ez dute zerrenda bakarrik nahi. Zergatik? Euskaraz jakiteak abantaila emango dielako euskaldunei. Jakina! Ingelesa, frantsesa edo matematika gehiago jakiteak abantaila ematea normala

da haientzat, baina euskaraz jakitea balorizazioa ez, hori ez da normala.

Penagarria da Nafarroako Ezker Batua eta Batzarre noraino iristen ari diren gai honetan, euskaldunen eskubideak oztapatuz. PPKo Ana Beltranek maiz egiten digu iseka euskaldunoi: “Baina lau katuk hitz egiten du-eta, jendeak maite balu hitz egingo luke” eta gisakoak botaz. Eta sakonean, argudioetan, Ezkerrakoak berdintsu ari dira: euskara bai, baina ez dakienaren aurrean abantailarik ematen ez badu. Euskaldunon aurrerapauso txikiak gaztelaniaren aurkako erasotzat hartzen dituzte. Txikia eta baztertua balorizatu beharrean, erraldoia babestea erabaki dute orain.

Nafarroako Hezkuntza Kontseilaritzak orain egin du 2015ean egin behar zuena, hau da, zerrenda bakarren proposamena aurrera atera, are gehiago gehiago sindikal osoa alde izanda. Izan dadila I-E euskararen argazkian noren ondoan jarri erabakitzen duena. I-Ek, gainera, harrotasunez hartzen du rol hori, herritarrei erakutsi nahian bera dela aldaketaren gobernuari euskararen esparruan –identitatearenean, diote haiek– mugak jartzen dizkion indarra. Euskara eta identitatea banatu behar ei dira, baina praktikan eurek lotzen dute. Domina tristea paparreratzen duena, baina bakoitzak erabakitzen du zein miseria eta zein dohain kargatu bere motxilan.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gutxiengo sozial baten zerbitzura



Juan Mari Arregi

Aurrekontuak erabakitzeke atarian gaude EAEn: ez dira sozialak, ez subiranoak, eta are gutxiago parte hartzaileak. Nola definitu dezakegu Aurrekontu Orokorrak helburutzat dituen gobernu bat, horretarako ez baditu kontuan hartzen sektore sozial handi bat ordezkatzeko duten sindikatuak? Nola, hauen kontrako norabidean egiten baditu legeak? Eta herri honen zati handi bat ordezkatzeko duten alderdi politikoekin negoziatzeko atea ixten badu, zer esan dezakegu gobernu horretaz? Zalantzarik gabe antisoziala, neoliberala eta kapitalista dela.

Halaxe erakusten ari da lotsarik gabe aurpegia Urkulluren Gobernuak. Baldintzak jarri ditu ezker abertzalearekin eta Elkarrekin Ahal Dugurekin negoziatzea ezinezko egiteko, eta aldiz, PSE eta PPrekin akordioa adosteko erabat irekita aritu da, hauek Confebask patronalaren kudeatzaile huts direla erakusten ari diren arren. Patronala bere zerbitzura dagoen zerga erreforma lortzen ari da –aurrekontuok izango dira lehen emaitza–; orain erabaki hori Batzar Nagusietatik igaro eta hiru alderdiok onartu egingo dute gehiago direlako.

Sozietate Zerga %28tik %24ra jaitea izan da patronalak inposatu duen negoziatorako gakoak, nahiz eta berez, irabazien gaineko tasa efektiboa %16,2 den. Hala, Sozietate Zergaren ekarpena 100 milioi euro inguru murriztea lortuko dute. Jaur-laritzari eta bera politikoki babesten dutenei ez dirudi asko axola zaienik Osakidetzako edo hezkuntza publikoko langileek lan baldintzak hobetu eta kalitatezko enplegua eskatzea, ohi bezala agintariek esango dute ez dagoela baliabide ekonomikorik. Patronalaren interes berak dituzte, honen kudeatzaile huts dira, gutxiengo sozial baten zerbitzura.



SANTO DOMINGO BIZIRIK

Hilabete etxetik kanpo

GASTEIZ. Hilabete pasa da, Udalaren aginduz, Gasteizko Alde Zaharreko Santo Domingo kaletik bederatzi familia euren etxeetatik irtenarazi zituztenetik. 40 eta 42 zenbakietako etxebizitzak “erortzeko arriskuan” zeudela argudiatuta, 72 ordu eman zizkieten bertako bizilagunei eraikina husteko. Santo Domingo Bizirik plataformak jakitera eman duenez, familia batzuei lau aldiz aldarazi diote etxez eta gehienak egoera tamalgarrian bizi dira. Udalaren jarrera “utzikeria hutsa” dela diote bizilagunek.

Farmazeutika batek bidaia ordaindu die politikariei

Andoni Mikelarena
@andonimik

Amgen multinazionalak gonbidatuta, Dublinen izan dira EAJ, PP eta Ciudadanos alderdietako senatari batzuk, ElDiario.es-ek jakinarazi duenez. Espainiako Senatuan osasun batzordeko kideak dira senatari hauek.

Zertara?

Biosimilareen araudia legezatzeko eskatu izan die sektoreak politikariei. Bada, ardura-dun hauetako batzuek bidaia egin dute Dublainera, farmako hauen egileetako baten fabrikara. Iaz, 7.000 milioi euroko sarrerak aitortu zituen Amgen-ek.

Azalpenak

“Ez zen Ganberako bidaia ofizial bat izan”, adierazi du Alderdi Popularrak. EAJko iturriek berriz honakoa argudiatu dute: “Bisitak parlamentuko lanarekin lotura zuzena zuela iruditu zitzaigun, eta egoki ikusi genuen proposamena onartzea”.

Biosimilareak

Biosimilareak medikamentu biologiko mota bat dira. Medikamentu biologikoez patentea galtzen dutenean gizarteratzen diren tratamenduak dira eta hauek merkeagoak izan ohi dira normalean, jada patentea galdu dutelako.

ADIERAZPEN
ASKATASUNA



930

kazetari hil dituzte 2006tik 2016ra munduan (Unesco). Batez beste, astero bi kazetari hiltzen dituzte adierazpen askatasunaren aurkako indarkeriaren ondorioz.

10

kasutatik 1 baino ez da iristen epaitegiatar. Bahiketak, desagerpenak, jazarpena... ere jasaten dute.



DIKTADURA

Argentinan diktadura garaian egin ziren gizateriaren aurkako krimenak epaitzeko egin den auzirik handienaren ebazpena eman du epaileak. Bost urte irau du epaiketak eta 54 akusatu igaro dira. Bi militar ohi bizi osoko kartzela zigorrera kondenatu dituzte, besteak beste.



UGALKETA

Ama izan nahi eta bikotekiderik ez duten emakumeek zein bikote lesbianek ugalketa-tratamendua sistema publikoan jaso ahal izango dute Nafarroan. Orain arte, bide pribatuaren aukera bakarra.



CHILLIDA LEKU

Hauser & Wirth galeria suitzarrak Eduardo Chillidaren familiarekin adostu du Hernaniko museo berriz irekitzea. Bi traba izan ditu negoziazioak orain arte: finantzazioa eta kudeaketa eredu. Urtean 400.000 euroko gastua dauka museoak.

Lafargek porlanaz gain lan-zuzenbidea nola kiskalarazi duen Grezian



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Osasun eta gizarte segurantzarik gabeko lan kontratuak, enplegu agentzia pribatuen nagusitasuna, egun eta ordukako kontratuak, pagarik gabeko lanaldi derrigortuak, mugarik gabeko kanporatzeak, soldata jaitsiera etengabeak... Nola gertatu da langileen prekarizatzeko basati hau? Jakina zen konpainia handietako ugazabek sustatu dutela herrialde bakoitzeko lan zuzenbidea herdoiltzeko estrategia. Grezian agiri eta guzti erakutsi dute hori nola bultzatu duen multinazional batek.

“Grezio iritzi publikoan gauza zabaldua da herrialdeko lan arautegia *lobbyen* presiopean eraitsi dutela. Orain artean, ordea, hori berretsiko zuten frogak falta ziren. 2011ko azaroko e-posta batek frogatzen du Lafarge zementu multinazional frantsesak, lehendik ere hainbat eskandalutan nahasia denak, arrakastaz esku hartu zuela garai hartan Atenasko gobernuak erabaki zuen lan kodearen erreforma historikoan”.

Investigate-Europe kolektiboan ari diren Benoît Drevet, Leila Minano eta Nikolas Leontopoulos kazetariak eman dute albistea: “Lafarge zementugileak nola eskatu eta lortu zuen Greziako lan arautegia eraistea”. *Investigate-Europen* zortzi herrialdeko bederatzi kazetari ari dira eta ikerlan hau abiatu zuten *Efimerida ton Syntakon* egunkari greziarrak eskuratu ahal izan zituen e-posta konfidentzial batzuetatik.

Gaia bere garaian kokatzeko, gogoratu 2011n erori zela lehen ministro kargutik Georgios Papandreu sozialdemokrata, 2010etik kanpo zorraren krisi bortitza kanpatuta. Ordurako Europako agintariak Greziari bere kanpo zorra berregituratzeko plan ekonomiko oso gogor bat ezarri nahi zioten eta Papandreuk plan hori herriarrei erreferendumean eskaintzea agindu zien. Grezia eurotik irteteko aukera aipatzen zen hilabete haietan. Alabaina, Papandreuk bateko eta beste presioen aurrean amore emanda kargua utzi zuen.

Denak parlamentuko jokoari begira zeuden artean indar ekonomikoek, orain modernoek *botere errealek* deitzen dietenek, zertan zebiltzan erakusten dute Lafargerren Greziako lehendakari Pierre Deleplanque Nazioarteko Diru Funtzaren (NDF) ordezkari Bob Traa holandarrari bidalitako e-postek.

Heracles-Lafarge konpainiak Grezian 1.800 enplegatu dauzka, 422 milioi euroko salmentak eta 41 milioiko etekinak. Hiru zementu fabrika dauzka, horietako bat, Volos herrikoa, Europako handiena, porlana itsasoz esportatzeko aldamenean bere portu propioa ere baduena. %100 Lafarge-Holcim multinazional frantsesarena da: 100.000 langilerekin 25.000 milioi euroko salmentak dauzka planeta osoko 100 herrialdeetan barrena.

Lafargeko buruak NDFk Greziako ekonomia arrastoan sartzea bidalitako burokratari bere mezuan –Europako Bartzordean Greziako dossiera daramaten arduradun gehiagoren izenak eskatzeaz gain– zera dio: “Agindu bezala, honi itsatsita doakizu agiri bat laburbiltzen duena zein den Lafargerren jarrera Grezian premiazkoenak diren erreforma estrukturalak”. Lau neurri ezartzea derrigorrezkoa iruditzen zaio multinazionalari.

Lehena, nagusien eta langileen arteko gatazketan bitartekaritza egiteko Greziako legediak ezarrita daukan erakundearen ordeza, batzorde berriak sortzea ugazaba ezagunez eta profesional ez politikoz osatuak, horrela langileek bi-



tartekaritza lanetan daukaten indarra ahuldu eta gutxieneko soldadari buruz hartu beharreko neurriak errazteko.

Bigarren eskaria, langileen kanporatzeko baldintzak malgutzea, legeak une horretan (2011) dauden moduan kanporatutakoek errazegi daukatelako auzitegiara jotzea. Kaleratzeak errazte horrek, iragartzen zuen Lafargeko ugazabak, berehalako onurak ekarri behar zizkien enpresei, zorpean itota zegoen Greziako estatuari eta, nola ez, langileei berei.

Langileak bezatzeko neurriak

Multinazionalak Greziarako eskatzen duen hirugarren neurria, sektorekako lan hitzarmenak ezabatu eta enpresa bakoitzera mugatzea. Azkenik, galera ekonomikoagatik langileak kanporatzeko eskubide osoa enpresari uztea.

2012. urtean zehar Deleplanqueren eskari guztiak bihurtu ziren lege, Grezia *salbatzeko* bigarren planaren baitan. ETUI Europako Sindikatuen Institutuak laburbildu duenez, “aldaketa estruktural horiek ondorioztat ekarri dute negoziaketa kolektiboaren zatikatzeko eta hondoratzea, soldaten jaitsiera drastikoa –Grezio soldata minimoa 2012an 751 eurotik 568ra jaitsi zuten– eta gizarte segurantzaren diru sarrerak jaitea”. Eta hori gutxi balitz, lan gatazketan bitartekaritza egiten zuen erakunde indar gabe utzi zuten.

2014an *El País* eta *Wall Street Journal*ek argitaratu eman zituzten NDFren



Konpainiak bere webgunean eskaintzen duen argazkian, Heracles-Lafargek Volosen duen porlandegia; atzean dauka harrobi erraldoia eta aurrean portua, ekoiztutako zementua munduan barrena esportatzeko. Lafarge-Holcim multinazionalak, berrikitan jakin denez, 2014an Estatu Islamiarrari dirua ordaindu zion Siriako ipar-ekialdeko Jalabiyen daukan faktorian bakean lanean jarraitu ahal izateko. Frantziako prentsak gaia haizaturik, Lafargeko lehendakariak aurten eman du dimisioa.

barne paper batzuk, non Greziaz okupatzen zen ekipoak onartzen baitzuen konpainia pribatuek proposatu zituztela Greziari gero *troikak* ezarriko zizkion murrizketa, pribatizazio eta beste neurri bortitzez osatutako erreformak.

Zer eman dute erreformok geroztik? Greziako Langileen Konfederazioak urrian zabaldu duen txosten baten arabera, benetan latza da Greziako ekonomiaren egoera, zer esanik ez langile eta jende xehearena, 2013ko hondoratze handi hartatik bururik jaso ezinda.

Mundua azken 80 urteko krisi ekonomiko larrienean murgildu zen 2008 harrekin alderatuz gero, inbertsioa Grezian ordukoa baino %63 txikiagoa da. "Kalkulatzen da 2008ko inbertsioen mailara ez gairela itzuliko gutxienez 2033 arte". Kontsumoa %23 apalagoa da, "eta ez da handituko gaur dauzkagun austeritate

neurriekin, baldin eta ez bada lanpostu eta soldatetan txokeko neurriren bat hartzen".

Langabezia tasak ere hirukoiztu egin dira, 2008an lanik ez zuten 99.000 herritarrek gaur 267.000 dira, 2017an langabezia tasa ofizialki %21 da. Kopuruotan ez dira kontutan hartzen *bel-tzean* edo bestelako sasi-enpleguetan ari diren behargin ugariak. Bestalde, sindikatuak ohartarazten duenez, kopuruotatik kanpo geratzen dira Europar Batasunaren laguntza programaren batekin urtean 8 hilabeteko kontratuak dauzkatenak ere.

Lanpostu prekarioen ugaritzeak ere aldaketa handiak ekarri ditu soldatetan, aldikako langileen batez besteko sarre-rak 397 eurokoak izan ziren 2016an. Denbora osoko kontratua daukaten langileen %34,7k eta ordukako kontratua

daukatenen %42,13 soldata minimoa baino gutxiago kobratzen dute, 586 euro azpitik. Hori dela eta, gero eta langile gehiago bizi da txirotasun mailaren azpitik. Bitartean, estatuak zerbitzu publikoetan bezala laguntza sozialetan sekulako murrizketak egin ditu.

Grezia aktualitatearen jarraipen txukuna egiten duen *Keep Talking Greece* idatzi duenez, "langabezia handiak eta austeritateak jotako Grezian soldatak hondoratu egin dira. Nagusiek ahalik eta gutxien gastatu nahi dute soldatetan, langileak behartuta daude krisiaren aurretik pentsa ezinezkoak ziren tratuak onartzera. Nagusiek lotsarik gabe edozein legeri ezikusia eginez, eskua bete kakahuete eskaintzen diete ultimatum honekin: 'Nahi baduzu hartu, bestela utzi'. Horra langabetu etsituek errefusatu ezin duten xantaia". ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Joseba Tapia, musikaria

«Guk kultutzat ditugun tresna asko larreko ikusten dira beste tokietan»

Elgeta handia hil zen urtean jaio zen Joseba Tapia handia, Eleuterio Tapia handiaren iloba. Denak handi, soinu txikia jotzen handi, soinu txikiaren poz handitasuna aldarrika han eta hemen eta munduan barrena, *Besamotzak* disko berrian nahiz *Larreko eskolatik* liburuan.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Disko berria dakarzu, baina hori bezainbat edo gehiago interesatzen zait zure gogoeta: *Larreko eskolatik, trikitixarekin gozatzeko apunteak* (Tirikitauki, 2016).

7 urterekin. Fandango bat atera nuen, eta segituan pentsatu zuten etxean: “Hau musikaria zatorrek”, zeren familiar –osabak, besteak beste–, trikitilariak baitziren. Trikitilari haiek ez zuten bere burua musikaritzat, ez bere soinu txiki hura tresna seriotzat. Seguruenik, soinu kromatikokoek barre egiten zitelako, batetik, eta bestetik, soinu kromatikoak jotzen zituen piezak beraiek ezin zituztelako jo. Liluratu egiten ziren soinu kromatiko entzunda. Horregatik, eta haien aholkuz, Bikondoaren akordeo eskolan sartu ninduten.

Soinu handia, esan nahi duzu.

Bai, soinu handia. Huraxe zen hemen nagusi, ezkontza eta bestelako festa guztietan. Soinu txikia ermita giroan eta toki urrunetan baserritarren batzuek jotzen zuten tresna zen. Soinu kromatiko, hura bai zela! Gure osaba trikitilariak mira handia zioten soinu handiari. Eleuteriok [Tapia] soinu-jotzaileen bil-

tzarretara eraman izan ninduen Larraitzera [Ñañarri itzalean]. Han, Juanito Kaolin, Elola... eta garai bateko soinu kromatiko jotzaileak biltzen ziren. Eta gu haien ondoan. Handia zen hura. Hala ere, ni ordurako soinu handia utzia nengoen. Trikitira pasatu nintzenean eza-gutu nuen soinu handiarentzako mira.

Soinu txikian ari zinen zu.

Soinu txikiari nion nik mira. Familia-koak trikitia jotzen zuen, eta nik huraxe nahi. Hor, hala ere, beste gauza bat gertatu zen... Ni, soinu handia ikastera Bikondoaren era eraman ninduten, eta Bikondoa ez zen soinu kromatiko popullarraren zalea. Are gehiago, gorrotatu egiten zuen, soinu txikia gorrotatzen zuen bezala. Migel Bikondoak aita zuen soinu-jotzaile kromatiko popullarra, Diego Bikondoa. Ezagutu nuen nik, gizon txiki-txiki bat, txapela buruan, soinu handi-handi bat bizkarrean. Oso umoretsua. Semea, berriz, elitistagoa zen. Soinu kromatiko giro kultura eraman zuen, klasikotasunera, eta geroago, berriz, musika garaikidera. Errusiako auroreen piezak joarazten zizkigun.

Trikiti doinurik ez.

Hasieran, beharbada, fandangoren bat erakutsiko zigun Migelek, baina laster ziren fuera haiek denak. Kontzertueta-rako prestatzen eta obra zailak ikasten hasten ginen laster. 14 urte nituela, soinu handiago bat erosarazi zieten nire gurasoei. Hamalau kilo pisatzen zituen, Hohner handi bat zen, ezkerreko baxuak Basetti sistemarekin. Uste dut orduantxe esan niola neure buruari “Ez diat gehiago honetan segitu nahi”.

Joseba Tapia

1964, Lasarte-Oria

Trikitilari, trikitilari baina gehiago aspaldi. Musikaria. Sortzailea. Artista. Etxeko jarraitzaile zintzo eta leial eta, aldi berean, haiekin hautsi zuena. Espektakulu hutsa. Bizi osoa musika sortzen, kasik 40 urte diskoak argitaratzen, formula zaharrak eta bide berriak saiatzeko beti. Joseba Tapia, erraldoia.



14 urte zuk.

Adinak ere harrapatuko ninduen, se-guruenik. *La Campanella* obra ikasten ari nintzen, gogoratzen naiz, eta zenbat denbora behar izaten nuen orri bat ikas-teko! Hori, niretzat, musikaren alderdi tristea izan da. Aldiz, osaben soinu po-pularra –baita kromatikoa ere–, alai-a zitzaidan. Nik horretarako joera nuen.

Soinu txikia ez zen eskoletan erakusten?

Ez, irakaslerik ez zen. Nork bere kabuz ikasten zuen. Gure osaba izan zen era-kusten hasitako aurrenetako bat. Gero-a-go hasi ziren Martin, Laja eta besteren batzuk. Ez zegoen erakusteko eskolarik. Sakabi erakusten ibiltzen zela uste dut, eta aurretik Elgeta, noski. Gainerakoan, esango nuke denbora tarte batean ez zela trikitilari gazterik izan. Esan nahi dut nik 14 urte nituela, orduko trikitila-ri denak nahiko zaharrak zirela. Tarteko belaunaldia falta zen. Baten bat bazen, hala ere, Sahatseta eta besteren bat.

Trikitia galtzera zihoala esan nahi duzu?

Beheraka, behintzat. Gero, 70eko ha-markadan, loratu ziren ikastolak, loratu demokraziak eta direnak eta ez direnak, eta soinu txikia bertakoa balitz bezala sartu zen euskararen mundu eta gizar-te horretan. Ez txistua, ez soinu handia, soinu txikiak hartu zuen leku hura. Or-durako, bai txistuak eta bai soinu han-diak hartua zuten mundu kulturako bi-dea. Bestalde, gertatu zena, belaunaldi berria azaldu zela soinu txikia hartuta: Kepa Junkera, Imuntzo, gu geu... Belau-naldi hura soinua eraberritzen ari zen.

Txapelketak leiho eta plaza izan zituen belaunaldi horrek.

Gerra ostean, 1970ean hasi ziren txapel-ketak. Donostiako Trinitate plaza bete egiten zen. Gogoratzen naiz 1979an, ar-tean ni trikitiarekin hasi gabe nengoela, Anoetako frontoia ere bete egin zela. Po-pularra zuten soinu txikia, indarra zuen, baina oso probintziako gertatzen zen oraindik. Garai hartan hasi ziren gura-soak beren umeak trikitia ikastera bidal-tzen. Eta trikiti eskolak sortu ziren. Mar-tinena izan zen inportanteenetako bat.

Eta erakusteko modua?

Hori ere kanbiatu egin zen. Eleuteriok belarriz erakusten zigun, Martinek, nu-meroak baliatzen zituen, numeroak jartzen zizkien soinuaren botoiei. Mar-

tinen eskolatik atera ziren hemengo tri-kitilaririk famatuena: Gozategi, Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider, Iparragirre, Iker Goenaga, Azkonobieta, Laura Apez-tegia... belaunaldi oso bat.

Musika eskoletara ere sartu zen trikitia.

Eta Hernaniko kontserbatorioko ira-kasle izan nintzen. Esaterako, Juan Mari Beltranek txalaparta, alboka eta kon-tserbatorio batean ezohiko ziren tres-nak erakusten zituen. Larreko trikitia ere sartu zen, beraz. Hala ere, eta hauxe da nire teoriaren *madrea*, kontserba-torioko filosofiara makurtu behar izan zuten larreko musika tresna guztiok.

Zer esan nahi duzu?

Kontserbatorioak ez zirela larreko tresnetara hurbildu, larrekok hurbil-du behar izan zutela kontserbatorioko kaiolara. Irakaskuntza pisua nagusitu zen, irakaskuntza arauz eta tristuraz bete. Trikiti ikasle guztiak derrigortu zituzten solfeo ikastera, obra klasikoak jotzera jarri izan zituzten denak batera, baina obra hauek ez ziren sartzen soinu txikiaren tonalitetean. Txikitatik.

Zenbat urterekin?

Gaur egun 7-8 urterekin hasten dira umeak musika eskolara. Gu, berriz, ne-rabezaroan hasi ginen. Eta zer egiten du musika ikasleak 7 urtetik nerabezarora bitartean? Nazkatu. Musika eskolan irakaskuntza pisu hori ezartzen dietela-ko. Ez da aisialdiaren barruan kokatuko genukeen eskola, beste karrera bat da, bere betebeharrak zorrotz guztiekin. Bat-zuek txintxo-txintxo betetzen dute lan hori, baina 16 urte bete eta ez dute ordu arte gau eta egun jotzen ibilitako dena delako musika tresna berriro jotzen.

Aisialdian kokatuko zenuke zuk trikitia, larreko nahiko zenuke.

Ez naiz pedagogia berririk sortzen ari, neure azalean ezagutu dudanez eta munduan barrena ibilita ikusi dudane-tik ari naiz. Munduko folk jaialdi guztie-tan larreko musika jotzen da, ez musi-ka kultua, baina guk kultuztat ditugun musika tresna asko larreko ikusten dira han. Adibidez, biolina, guretzat gauza kultua, larreko da bateko eta besteko jaialdietan. Tresna ez baita problema, norberak eransten dion erregistroa bai-zik. Akordeoi kromatikoa ere ezagutu dugu guk larreko bezala, Louisianako

Lastima belarri ona

“Bikondoak nire gurasoei esaten ziena: ‘Lastima, mutil honek belarri ona dauka. Etzaiozue utzi belarriz jotzen. Jo dezala paperetik.’ Orkestrarako nahi gintuen, artaldean, zuzendariaren mendean. Guk, berriz, besterik nahi genuen, libre”

Alaitasuna

“Guraso batek esan zidan. Bera musikaria, alaba biolina jotzen abila. ‘Zein ondo jotzen zuen gure alabak biolina. 16 urte bete ditik, gaintu dik kurtsoa, eta uztera zoak biolina!’. Esan nion: ‘Pozik egon! Agindutakoa bete dik, ez? Aprobatu dik. Hik, berriz, frustrazioa adierazten duk’. Jakina, hori oso urrun dago alaitasunetik”

beltz bat, piano jotzen, hiru gauza xin-ple jotzen, baina nola jo! Haren zaporea, haren erritmoa... ez zen eskolatua, belar-ri ari zen.

Soinu kromatikoa eta soinu txikia kon-pondu izan dira, esan duzue.

Bata soinu handia eta bestea soinu txi-kia jotzen ari garenean, hura saiatuko da tonu guztietan jotzen, txikiari de-monstratzeko ez dela haren mailara iri-ten. Aldiz, larrekoa ez da inor zapaltzera etortzen, elkartzera etortzen da. Kul-tuak ez, kultuak bere barrutia markatu behar izaten du. Uzbekistanen ere ikusi dut hori, soinu handiaren handinahia soinu txikiaren aurrean: zapaltzera. Bai-na badiot, problema ez da musika tres-na, jotzaileak baizik. Haiek orkestrarako ari dira prestatzen, haietzat partitura lehen ikustaldian irakurtzea da inpor-tantea, zehaztasuna da lehenengo. Gu,



berriz, beste lan batean ari gara, ez dago larrekoaren eta kultuaren arteko gatazkaririk, bide ezberdinak lantzen ari gara, besterik gabe. Eraikitzailea iruditzen zait gure musika irakaskuntzara begira.

Musika bat dela esango dute askok.

Bai, baina ez gara lan berean ari. Nik lantzen dudana arloa landuta, ezin dut pentsatu orkestran jotzea. Eta orkestran ari denak ere nekez joko du belarriz inoren ondoan, sekula ez baitituzte horretara jarri. Ez dago komunikaziorik.

Belarria da aldea.

Orkestrako musikariak entzumen absolutua du goren. Halako nota bat jo eta sol sostenitua identifikatzea, ahal den azkarrena. Guri horrek ez digu ezertarako balio. Gure belarria da doinu bat entzun eta hura jotzeko gai izatea. Nik ez dut paperik behar entzun dudana musika

jotzeko; orkestrakoek, bai. Nirea gertuera bat da, hala ere, eta haiek ez dute gertuerarik onartzen, zehatz behar dute jo. Gurean gutxi gorabeherakoa txalotzen da, haienean zehatz interpretatu beharra dago partiturak agintzen duena, ez dago aportazio egiterik. Gurean, berriz, dena da aportazioa. Larreko musikaren ama-orantza? Harmonia sinple baten korrelazioa, pentsatu beharrik ez dakarrena, edozeinek jarraitzeko modukoa.

Jokoa, batetik; jolasa, bestetik.

7 urterekin hasi nintzen soinu kromatikoa jotzen, eta orain, soinu handiaren irakasleak ikasle gabe dauzkagu, trikitia erakustea beste aukerarik ez dutela, gorrotatzen duten instrumentua.

Trikitia ere horretara helduko ote da?

Badut beldurra, trikitiak lotura baitauka beti kalejira, erronomia, jaialdi eta zer

edo zerekin. Hala ere, ikasleak trikitia ikasteko gogoia galtzea ere ez litzateke harritzekoa izango, oraingo modu estu horretan erakusten arituz gero. Bestalde, babesik gabe utzi gaituzte trikitilariok. Munduko musika guztietara ireki ditugu geure buruak, eta munduko enpresa eta konpainia handi guztien kontra lehiatu behar dugu, gauza inposiblea. Gure bitartekoak korporazio handiek zuzentzen dituzte, eta ezin dugu hurbildu gure gazteen aurrera ere, multinazional handien musika kontsumitzen baitute, ez gurea. Gure musika kontsumitzekotan, kontzientzia izan beharko lukete, kritikoak izan, eta hau eta hura. Trikitilariok hilda gaude, ez daukagu lehiatzerik, euskararen munduak ere ez gaitu babesten.

Euskarak ere ez?

Ez, bertsolaritza, adibidez, "euskara" da. Gu ez, gu "kultura" gara. Euskalgin-

tzak berak ere ez gaitu aintzakotzat hartzen. Gure txikizioa begi bistakoa da. Euskarazko kantagintza zeharo babesgabetua dago. Azkena noiz entzun duzu euskarazko kantu bat? Non?... Trikitiari lekua egin zaio beste musika batzuetara hurbildu denean, trikipop, triki folk, triki rock eta beste. Kasu horietan, txalotu egin da trikitia musika horietara gerturatzea, baina gerturatzea txalotu dute kritikariek, esate baterako, ez trikitia bera. Trikitia bera hiltzen utzi dugu, bazterrean. Gaur egun ere, kontsumo giro horretan mugitzen den trikitia onartzen da, ez besterik.

Besterik ez?

Mundu hertsu bat, nahi izanez gero. Laja, Izer eta beste hainbatena, Iturriotz, Attola eta beste zenbait lekutako erromeriak... Horiek ez daude kontsumo munduaren barruan, noski, baina, behintzat, babestxo bat badaukate horiek, tradizioaren mundu zahar horrena. Han kontsumitzen da musika hori. Guk babes hori ere ez daukagu, gure musika ez da kontsumitzen. Gu solidaritate kanpainetarako besterik ez gaude.

Azken hitza:

Rocka bai, trikitia ez

“Euskadi Gaztea sortu zenean elkar-
rrizketa egin zion Ramon Sanchezek,
esango nuke, Edurne Ormazabali. Gal-
dera Ramonek: ‘Musikaren irrati berri
honetan, trikitirik egongo al da?’. Eta
erantzuna: ‘Rock baldin bada, bai’. Oso
argigarria. Eta horrelaxe gertatu da.”

Zein da, beraz, soinu txikiari opa diozun etorkizuna?

Nik tresna guztiekiko lilura daukat, ez bakarrik soinu txikiarekikoa. Kontua da instrumentuekin zer egiten den. Hor dago koxka. Kontua da zer gertatuko den euskararekin, zer gertatuko den hemen sortzen den kulturarekin... Ez naiz oso optimista ere, baina egingo du, ez-kerrera edo eskuinera, baina egingo du. Izango da musikarik. Gainerakoan, ez nau kezkatzen. Guk ere parte hartu ge-

nuen lehengo musikaren desagertzean. Garai batean behar jakin batzuk izan zituzten, eta trikitiak bere lekua egin zuen. Hala ere, instrumentuarekiko zorrik ez dut sentitzen, bai ordea, musikarekikoa. Eta musikarekikoa ere, ez modu neutroan, errespetu eta seriotasunean baizik.

Zer esan nahi duzu?

Adibidez, Apalaxeetako musika ezagutu nuenean, hango testuinguru, estilo eta bizimoduari lotuta entenditu nuen. Hori aldatuz joango dela pentsa genezake, eta ez nau kezkatzen. Musikaren ekologiak kezkatzen nau, bertan ekoiztea eta bertan ekoizten dutenekin bizitzea bermatu behar dugu. Gainera, hau ez al da krisi guztiak iraultzeko modu bakarra? Bertan ekoizti bertako beharren arabera musika eta artea. Ekologia da, esnobismorik gabe. Mundu honi kolorea, dibertsitatea eta aberastasuna ez al dio horrek ematen? Horra gure arazoaren soluzioa. Eta globalizazioa ere horrelaxe entenditu beharko genuke, bakoitzaren lana bermatuz, kalitatearen arabera. Ebidentea da! ■

Gozatu **elhuyar** aldizkari berria

Zientzia eta teknologiaren arloan gertatzen den guztia, eskura: gaurkotasuna, iritzia, analisia, istorioak, irudiak, hemengo ikerketa...

Hiru hilez behin jasoko duzu etxean eta noiznahi eduki gehiago izango duzu webgunean

Urtean 16 euroren truke

Harpidetu zaitez edo oparitu ezazu harpidetza, hemen: <http://aldizkaria.elhuyar.eus/harpidetza>

Estatu kolpe baten eta neo-kolonizazio baten kronika

Iau urte bete dira Kieven Euromaidan mobilizazio txikia hasi zela. Mobilizazio batzuek sarbide pribilegiatua dute eliteen zirkuluetara sistema hegemoniko kulturalari mesede egiten diolako edota mobilizazioan parte hartzen dutenen kapital sinbolikoa handia delako.

Pierre Bourdieuren arabera, kapital sinbolikoa pertsona banako bakoitzari atxikita dauden propietateak dira: ospea, gustu ona, autoritatea, prestigioa, erreputazioa, fama, ohorea eta abar. Guzti horiek baina, ezagututako eta errekonozitutako kapital ekonomiko eta kulturean laburbiltzen ditu Bourdieuk.

Hasierako Maidaneko partaideek bi ezaugarri zituzten. Horri esker, mobilizazioak azkar topatu zuen oihartzun mediatikoa, mobilizazio handia bilakatu arte. Mendebaldeak eta bere esanetara zegoen elite politiko ustelaren parte batek azkar ulertu zuten beraien aldeko estatu kolpe biguna emateko aukera bezala. Halere, gobernu ukrainarrak ez zuen aitzakiarik ematen plana gauzatzeko. Hor azaldu ziren 2014ko otsaila erdialdean frankotirtzaile batzuek manifestariak eta poliziak erailtzen. Espero zitekeen bezala errua eta presio mediatiko guztia Ukrainako gobernuaren lepoan erori zen. Egocera horretan, akordio bat sinatu zuten oposizioko kideek, gobernuak eta bitartekaritza lana egin zuten Europar Batasuneko (EB) herrialdeetako ordezkariak. Alferrik izan zen, hurrengo egunean oposizioak ez zuen akordioa bete eta estatu kolpea eman zuen. Barack Obamak CNN telebista katean esan zuen erregimen aldaketaren artekaritza lana egin zutela. Instant batean Mendebaldeak legitimatu zuen kolpea.

Hainbat ikerketek garbi utzi dute frankotirtzaileak oposizioko kideak zirela. 2014an horrela esan zion Urmas Paet Estoniako Kanpo harremaneta-



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Hainbat ikerketek garbi utzi dute frankotirtzaileak oposizioko kideak zirela. 2014an horrela esan zion Urmas Paet Estoniako kanpo harremanetarako ministroak Catherine Ashton-i, AEBetako atzerriko politika arduradunari, baina hedabideei bost axola. Orain datu berriak agertu dira

rako ministroak Catherine Ashton-i, AEBetako atzerriko politika arduradunari, baina hedabideei bost axola. Orain datu berriak agertu dira. Frankotirtzaileetako batzuek adierazpenak egin dituzte Italiako telebista batek eginiko dokumental batean eta Mazedoniako

telebistan azaldutako elkarrizketa sakon batean. Frankotirtzaileek esplikatu dute nola beraiek tiro egin zuten bi aldean aurka anabasa sortzeko asmoarekin, horretarako izan ziren kontratatuak. Georgiarrak ziren, lituaniarrak baziren ere bai, eta buruzagia militar ohi estatubatuarra zen. Izenak, irudiak eta frogak asko dira, baina hedabideek ez dute ezer esan nahi, agintariak ez dute ikertu nahi, eta batez ere, Mendebaldeak ez ditu ezagutarazi nahi XXI. mendeko estatu kolpeen forma berriak; hobe jendeak pentsatzen badu kolpeak ez direla existitzen “mundu garatuak” kontrolatu nahi dituen lurraldeetan.

Bitartean, Ukrainaren neo-kolonizazio prozesua azkartu egin da: kanpoko enpresek lurra eta lehengaiak merke erosi dituzte saldoka. Herritarrek 2013tik batez besteko soldataren %38a galdu dute (232 euro hileko), zerbitzu publikoetako tarifak 5-10 aldiz biderkatu dira, eta elikagaien eta energia-aren prezioak bikoiztu edo hirukoiztu egin dira. Bestalde, Ukrainak goia jo du nazioarteko ustelkeria sailkapenetan, txoko guztietara barreiatu da biolentzia politikoa bezala. Eskuin muturreko nazionalista ukrainarrek burutzen dituzten erailketak ugaltu bezala zigor gabe gelditzen dira. Adierazpen askatasun prekarioa desagertu eta esparru pribatua adierazitako iritziak jazartzen dira egungo erregimenean.

2014ko estatu kolpea eta gero, askatasun zibiletan Ukrainak izan duen gainbehera nabarmena da, horrela adierazi du Demokrazia eta Hauteskunde laguntzarako Nazioarteko Institutuak, europar hegemonia ideologikoa elikatzeko sortutako suediar gobernu arteko erakundeak; baina berdin dio, Ukraina dagoeneko zintzoa da filmeko bakeroen esanetara dagoelako, besteak beste Ukrainako ekialdeko sezesionisten aurkako bonbardaketak burutuz. ■

Zazpi kooperazio

Lankidetzaren, kooperazioaren, kolaborazioaren eta elkarlanean antzerako kontzeptu bat azaltzeko termino ezberdinak dira. “Elkarrekin lan egitea” dago hauen guztien esanahiaren muinean. Kooperazioa autoeraketarekin, parte-hartzearekin, pertsonen duintasunarekin, demokraziarekin eta elkartasuna praktikatzeko modu erreal batekin ere erabat erlazionatuta dago. Beraz, esan daiteke, termino hauekin daukan loturengatik daukara daukan trantszendentzia.

Aurrera egin baino lehen, gaiaren inguruan beste hiru kontsiderazio: kooperazioa, hasteko, praktika interesgarria da pertsona eta kolektiboentzat; horrez gain, Euskal Herriak tradizioa dauka bere burua antolatuz, eta elkarlanean, proiektuak aurrera ateratzen; eta hirugarrenik, etorkizunera begira, herri baten garapenerako gaurkotetasun osoa duen planteamendu estrategikoa da.

Gure garaira etorrita, daukagun errealitatea begi-bistatik galdu behar ez dugunez, esan behar da kooperazioa egiteko bide ezberdinak daudela. Esaldi bakarrean adierazita, kooperazioa kooperatiba barruan zein kanpoan ere gara daiteke. Herri bezala gure organizazioentarako eredu propio bat, humanoagoa, duinagoa, errentagarria eta eraginko-



Andoni Mujika

IRAKASLEA

@mujikaandoni

Gure garaira etorrita, dugun errealitatea begi-bistatik galdu behar ez dugunez, kooperazioa egiteko bide ezberdinak daude. Kooperazioa kooperatiba barruan zein kanpoan ere gara daiteke

rra nahi badugu, kooperazioa hantxe eta hemen zabaldu behar da. Lerro hauetan zehar kooperazioa praktikatzeko zein bide ezberdin dagoen identifikatzeko saiakera egiten da. Zazpi ikusten dira: Lehena, existitzen diren kooperatibetan. Kooperazioa sakontzeko eta

berritzeko aitzindari izan daitezke kooperatibak, plataforma paregabeak. Kooperazio maila altuenak lortzeko baldintzarik egokienak daude erakunde hauetan. Bigarrena. Kooperatiba berriak sortuz. Oso bide motibagarria da, baina mugak ere baditu. Esaterako, sektore batzuetan, industrian adibidez, oso zaila da lan-kooperatibak sortzea; kapitala eskuratzeko zailtasunak daukelako eta abar. Une honetan, Euskal Herrian, kooperatiba berriak zerbitzuen sektorean sortzen dira batez ere. Hirugarren aukera kooperazioarako kapital enpresetan kooperazioaren ideia txertatzea da. Jabetzan, kudeaketan eta emaitzetan islatu beharko litzateke, kasu bakoitzean, adostutako graduan. Hemen dagoen desafioa da enpresari eta langileak komentitzen. Laugarrena. Kapital enpresak kooperatibizatzea. Krisian edo une berezi batean (esku-aldaketa bat esaterako) dauden enpresak kooperatiba formulara ekartzeko momentu interesgarria izan daiteke. Bosgarrena. Erakundeen arteko interkooperazioa; bai elkartasunerako, eta baita sinergia enpresarialetarako ere. Seigarrena. Elkarrekin herrigintza proiektuak aurrera ateratzeko egiten den lankidetzaren. Eta zazpigarrena, garapenerako nazioarteko kooperazioa. ■

 ARGIA

943 371 545

publiz@argia.eus

www.argia.eus/tarifak

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen

Ispiluaren aurrean



Iñaki Antigüedad
EHU-KO IRAKASLEA

Hamaika ikasteko gara aldaketak gauzatzeko behar den prozesu sozio-politikoan. Hortaz, behatoki berrituak behar ditugu, bes-telako ikusmirak ere. Azken batez, geroa ez dago idatzita, gaurko apustuekin ari gara idazten. Ildo honetan hartzen dut Kataluniako *procés*-a ikasgai, hango prozesuak hemengoan sortzen duen gogoeta ikasbide. Ispiluaren aurrean biluztu gaitu hangoak, duguna agerian, gure kontakizun batzuk birpentsatzeko beharrean... Noizbait euskal errepublikarako bidean prozesu eragilea bermez ibiliko badugu.

Gizarte zibila eta politikoa uztarri berean ikusi ditugu, kaleak, instituzioak eta boto-ontziak norabide partekatuan, antisistemak instituzioak babesten, bertoko polizia barne! Udalak eta Parlamentua eskutik... Kontingentzia planak aukerara, inteligentzia kolektiboa... Politikaren teoria praktikara eramanda, han, zailtasun handiz izan arren.

Kataluniakoak politikaren eremua eta eredua, biak, birpentsatzeko motiboak ematen dizkigu, gure labirintoak utzi eta euskal errepublikarako norabide argi eta zabalean asmatuko badugu behintzat, hitz handietatik harago. *Procés* diote han, aldaketek sakonak direnean horixe eskatzen dutelako, prozesu luzea, zirkularra, gorabeheratsua, atzera-aurrerakoa eta konplexua. Urteak eman ditugu independentzia modu

sinplean irudikatzen, gure esku hutsean bailitzan. Baina ez, Katalunia adibide, eta garen lekuan gara, atakan. Jakina, gure esku dagoena ez badugu egiten, akabo! Hortaz, aldebarrekoak aldebigoa hartu behar du helburuetariko bat, gerora Estatu onartua izan dadin gurea. Baina horretarako gizartean sinesgarri egin behar da bidea bera.

Katalunian autokritikatan daude, ikasbidean baitira. Horien arteko batek aparteko argia eman dit, hots, prozesuaz asko debatitu dela baina Estatu berriko sozio-ekonomiaz ezer gutxi. Gurean ere horren falta sumatzen dut, Euskal Estatu batek zer eskainiko lukeen gaurko autonomiak eskaini gabea. Azken finean, gehiengoak burujabetza sozialaren aldeko apustua egingo badu ongizatean aurrera egiteko bidean ikusten duela izango da, edo ez da apusturik. Eta horretan oraindik ez dugu asmatu.

Neure egiten ditut Kataluniatik kanpo den *president*-ak joan berritan esandako gako-hitzak prozesuaren erronka ulertzeko: Pazientzia, Pertseberantzia eta Perspektiba. Hirurak, eta malgutasun sendo batetik pragmatismo eraldatzailea ere, gurean gaurkoz nagusi den pragmatismo mugatzailearekin zerikusirik ez duena. Baina horretarako eragile berriak behar ditugu, direnak nahikoa izan ez; eta horretan, berriro, Katalunia erreferente. ■

Amaia eta Iker



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Amaia Agirregabiria eta Iker Rokandio kartzelarako bidean dira. Amaia Pasaiaiko alkatea izan zen aurreko legealdian, eta Iker udal horretako legegaria. Espetxe zigorra ezarri diete emakume baten eta udaltzain biren artean gertatutako trafiko liskar batean bitartekari-lana egin zutelako. Urte bi, sei hilabete eta egun bateko kondena dute, eta zazpi urteko gaitasungabetzea. Hau guztiau prozesu kafkiar baten ostean.

Seguruenera, fede onez egin zutena ez da legezkoa izango, baina kezagarriena da horrelako kontu batengatik kartzelara joan behar izatea. Baina gure munduan dena konpontzen da espetxearekin. Uste dut egin zutena ilegala

bazen, badaudela beste modu batzuk "zigortzeko". Gaitasungabetzea zazpi urterako ez da zigorraldi makala, gero! Batez ere, administrazioko behargina izanda, lan barik geratzea esan nahi duelako.

Begitantzen zait kasu batzuetan errazegi ematen dela espetxeratze agindua. Betiere, horretan asko laguntzen du euskalduna edo katalana izateak. Edota behartsua, Les Mecaniciens-ek kantatzen zuten lez: "Lapur txikiak kastigatzeko nonahi badago kartzela, handiak hor ikusten ditut paseoan dabiltzala".

Zuek ikusi nahi zaituztegu paseoan Pasaian eta Eibarren. Lehenbailehen. ■

Hitzaren artisauak

Pantailen eta teklaturen menpe bizi garen aro honetan, papera eta tinta dira inoiz baino ozenago aldarrikatu nahi ditugun osagaietako bi. Non hobe orrialde hauetan egitea baino! Non eta hainbat lankide aldizkaria tautzeko borrokatzen ari diren honetan, borroka horren beraren eredu dena, batzuei zaharkitua irudituko zaien arren, guretzat oinarritzokoa dena.

Zergatik egin internetek eta sare sozialek gero eta eklipsatuagoa dagoen formatu honen alde? Bada, hain zuzen ere, garena eta gustuko duguna egitea bermatzen digulako: kazetaritza sakona, analitikoa eta erreflexiboa, informazio hutsala eta galkorra izatetik urrun.

Astekari bat editatzeak artikuluak sinatzen ditugunon arduraz haragoko pertsonak inplikatzeko ditu. Testu hau itzuli eta zuzendu dutenena lehenik, ilustratzaile, argazkilaria eta diseinatzaileena ondoren, eta jarraian, ekonomiaz, publizitateaz eta banaketaz arduratzen direnena, ikusiezina baino ezinbestekoak sarritan.

Orrialde hauek astero jasotzea mirakulu kolektibo txiki bat da; eta aldi berean pribilegio handia zuen etxeetara eta zentro sozialetara heltzea. Papera da zuekin egoteko bitartekoa, interperlatu nahi dugun jendartearen begien bistako euskarria, ukigarria, horregatik, ezagutzen ez gaituenak gure aldizkari bat aurkitu eta irakurtzen duenean garaipen txiki bat da guretzat, aurrera segitzeko bulkada.

Ez dugu inor engainatu nahi, objektibotasuna gezur ohikoa da kazetagitza, etengabe errepikatua izanagatik sekula santan egia izanen ez dena. Kontatu nahi den errealitate oro, idatzia den prismaren baldintzapean dago, espazioa ematen zaien ahotsen aukeraketa subjektibotasun egintza da berez. Gakoa lan egiteko zorrotasuna eta zintzotasuna dira, eta horiek, zorionez,



David Bou

LA DIRECTA-KO KAZETARIA

@dvdbou

ARGIA eta La Directa-ren arteko harremana 2015eko maiatzean gauzatzen hasi zen, duintasuna irabazi duen Gasteizko plaza batean. Goiz hotz hartan, uniformedun saldo batek hiru gazte euren herrikideen besoetatik nola erazten zituzten ikusteak bihotza izoztu zигun lagun askori, baita injustiziaren horma artean sartu izanak ere

gure engaiamenduari esker bermatuta daude.

Egiten dugunean konfiantza jartzen duen jendearekiko zordun gaude, ez

enpresa taldeekiko ez aldi aldi alderdi politikoarekiko. Bistan da, horrek baditu bere mugak, horrek gure zabalpena oztopatzen baitu, gustatuko litzaigukeen hegemonia lortzea geldiarazten baitu, funtsean, hegemonia hori partaide garenko gizarteek behar duten ikuspegi aldaketa eragitea nahi dugulako. Hala izanik ere, gure printzipioei fidel izaten jarraitzea nahi dugu, helburu aldakorak imajinatzen ditugun bitartean bidean gozatuz egitea. Aldakortasuna ibilian ziurtatzen da.

ARGIA eta *La Directa*-ren arteko harremana 2015eko maiatzean gauzatzen hasi zen, duintasuna irabazi duen Gasteizko plaza batean. Goiz hotz hartan, uniformedun saldo batek hiru gazte euren herrikideen besoetatik nola erazten zituzten ikusteak bihotza izoztu zигun lagun askori, baita injustiziaren horma artean sartu izanak ere. Hainbat pertsonak arnasari eutsi genion zenbait orduz, gure oihuak isildu genituen eta gure kamerak altxatu euren ahotsa amplifikatzeko. Munduari tamainako desarrazoiak eta zentzugarriak ikusarazteko bitartekoa baino ez genuen izan nahi.

Lasai gaude. Eskuetan duzuen "tresna" hau atxikiko dugu, gertatzen ari diren eta gertatuko direnekiko adi gaudela esaten dizuegu, maitatzen eta gaitzesten dugun orori adi, ez etsitzera bultzatzen gaituzten historiaren gertakariari adi-adi gaituzte. Xede horretan zuek zarete ezinbestekoak. Zuen ekimenik gabe ez dago zer kontaturik, zuen sostengurik gabe ez genituzke baliabideak izango. Denok batera ekinez gero, ez dago isilduko gaituen mozalik. ■

P. S. "Gibelari helduz idazten dugu edota bihotza estutuz". (Ramón Acín, 1936ko agorrilean faxismoak hil zuen kazetari eta pedagogoak).

Zatoz!

2018KO DURANGOKO AZOKAN



ARGIA BIZI BARATZEA

txokora

Sarrera nagusiaren eskubi aldean
BARRENKALE 1-3



ZULOAN

Bidaia bat AHT eta lan-esplotazioan barrena
URKO APAOLAZA

Urko Apaolaza egilea bertan izango da abenduaren 6an eta 7an.

Prezioa: 14€ *

* Liburuaren aurkezpena Donostiako Kaxilda liburu-dendan egingo da abenduaren 12an, 19:00etan.

LANDAREAK LANTZEN

Urte osoko gida-liburua 2018

JAKOBA ERREKONDO
ANTTON OLARIAGA

Jakoba Errekondo bertan izango da egunero landareen kontsultategian.

Prezioa: 12€

LIBURUAREN AURKEZPENA

Jakoba Errekondo eta Antton Olariagaren eskutik.

Ahotsenea gunean.
Abenduak 9, 18:00etan.

2018KO ILARGIAREN EGUTEGIA

Prezioa: 5€

EGUTEGIAREN AURKEZPENA

Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibaren eskutik Pello Zabala eta Jakoba Errekondorekin.

Areto nagusian.
Abenduak 8, 16:30ean.

2018KO ARGIA EGUTEGIA TAULA / EGUTEGIA

- Ba al zenekien...?
- Hizkuntza gutxituak munduan
- Umorea
- Historiako emakumeak
- Euskal Herriko pegatak
- Mikroipuinak
- Baratzerako trikimailuak
- ARGIAN esanak

Egutegiaren prezioa: 9€
Taularen prezioa: 50€
(egutegia opari)

ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES KAMISETA

Kamiseta hau erosita, La Directa herri hedabideari eta ARGIAri lagunduko diezu Kataluniako independentzia prozesua zorrotz jarraitu dezaten.

Prezioa: 13€

ARGIA proiektua babestu eta kide egiteko aukera paregabea

INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA

egin ARGIAkoa!

ARGIA
argia.eu

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eu

ESKAERAK: azoka@argia.eu | tel. 943 37 15 45 | www.argia.eu/denda



AHT Nafarroan

ABIADURA HANDIKO MAMUA

Azken 25 urteetan, Txinaren ostean Espainiako Estatuan eraiki dira abiadura handiko trenbide kilometro gehien munduan. Baina azken urteetako ikerketa gehien esanetan, bai finantzen ikuspegitik bai begirada sozialarekin aztertuta, tren lasterra ez da errentagarria. Nafarroan, ordea, tren lasterra egin nahi dute Espainiako eta Nafarroako gobernuek. Ikus dezagun proiektua zertan den.



Xabier Letona

@xletona

2004an abiatu zen asmoa, Sustapen Ministerioaren Kantauri-Mediterraneo Korridorea 2005-2020 planaren barruan. UPNko kontseilari ohi Alvaro Mirandak esan zuen tren lasterra 2010ean sartuko zela Iruñean, baina 2008ko krisiak lozorrora eraman zuen. 2010ean Espainiako eta Nafarroako gobernuek Castejon-Iruñerria (Ezkirotz) tartearen hitzarmena sinatu zuten.

Harekin bai, trena 2015ean sartuko zen Iruñean, edo hala saldu zen bederen. Asmoak, ordea, ametsen esparruan jarraitzen du: AHT proiektuak 214 kilo-

metro ditu Nafarroan eta oraindik 14,5 besterik ez dira egin, Castejonetik Alesbesera. Azaroaren 29an, Sustapen Ministerioak Azkoien-Erriberri zatiaren lizitazio fasea ireki zuen: 43 milioi euroko aurrekontua 10 kilometro eraikitzeke.

Gainerako gehiena oso airean da, baina Espainiako eta Nafarroako Gobernuek mugitzen hasi dira proiektua berrabiarazteko. Iñigo de la Serna sustapen ministroak berriz jarri du data: 2023. Burgos-Gasteiz AHT zatia edo *Euskal Y*-a ere urte horretarako amaituko omen dira.

Espainia eta Nafarroako gobernuen tirabirak

Espainiako Sustapen Ministerioak – trenbide azpiegituren eskumena berea da– irailaren erdian 2010eko hitzarmena bertan behera uztea erabaki zuen, Nafarroako Gobernuan AHT proiektua bultzatzeko gogorik ikusten ez zuela argudiatuta. Iruñekoak haserre erantzun zion ez zela horrela, hitzarmenaren izaeran zeudela desberdintasunak. Bi gai indartu nahi zituen Manu Ayerdi Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak: bata, Nafarroako lau zatiak kontuan



hartzea eta guztietan konpromiso maila zehatzak finkatzea; bi, Nafarroako Gobernuak finantziazioan jarritako dirua urteko kupoaren bidez kitatzea. Orain arte Nafarroak 81 milioi euro jarri ditu proiektuan, eta Espainiako Gobernuak ordainketetan izandako atzerapenak 5,1 milioi euroko finantza gastua eragin dio.

Zer dio Nafarroako Gobernuak sostengatzeko akordio programatikoak?

Trenbide sarearen edozein hobekuntzak akordio programatikoak bete behar duela dio Geroa Baik, Madrilgo proiektuak egiten duela hori, eta horregatik sostengatzen duela. Akordioak zera eskatzen du: proiektua nazioarteko estandarrekin bateragarria izatea, besteak beste salgaiak Europako bide-zabalera duten trenbideetatik ateratzeko; aldiriak eta distantzia luzeko garraio beharrei erantzuteko epe luzeko asmoa agertzea. Geroa Bairentzat giltzarri da proiektuak bat egin dezan *Euskal Y*-arekin.

Geroa Bai AHT proiektuaren aldekoa da –Prestakuntza Handiko Trena (PHT) deitzen dute orain– eta EH Bildu, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra aurkakoak. Ados jartzen ez zirenez, oso modu zaballean interpreta daitekeen testua adostu zuten eta Nafarroako Gobernuak uste du horrekin PHTrekiko argi berdea duela. Nafarroako Legebiltzarrean abiadura handikoaren aldekoa dira UPN, Geroa Bai, PSN eta PP, 50 eserlekutik 33.

» 25 urteko esperientzia garatu da Espainiako Estatuan eta, azterketa guztien arabera, ez du zentzurik abiadura azkarraren eredia berdin garatzeak

» Munduan hiru AHT zerbitzu bakarrik dira erabat errentagarriak: Tokio-Osaka Japonian, Paris-Lyon Frantzia eta Jinan-Qingdao Txinan, bereziki lehen biak

Eztabaida gizartean

Gobernuek gaia mugitu ahala, AHTren aurkako gizarte mugimenduak ere bere oposizio lana azkartu du. Ekinbideetan nabarmentzekoa da Sustrai Erakuntzarako irailan aurkeztu zuen proiektu alternatiboa –aparteko laukian azaltzen da bere oinarria–: Tren Publiko eta Soziala. Mobilizazio ugari egiten ari dira Nafarroa osoan AHTren aurka, eta bereziki Tafa-

llako eskualdean; Madrilgo proiektuarekin Tafallako geltokia desagertu egingo litzateke ibilbide luzeko bidaietan.

Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu bat ireki zuen bere webgunean iragan irailean, baina proiektuaren aurkako gizarte mugimenduek hori ez dela nahikoa gogorarazi diote, eta ez duela zerikusirik egin diren beste eztabaida prozesu batzuekin, esaterako, hondakinen plan berriarekin konparatuta.

Bi eredu

Bi proiektu kontrajarri daude eztabaidaren muinean: Prestakuntza Handiko Trena (PHT) edo Tren Publiko eta Soziala (TPS). PHTren kontzeptua 2012an landu zuen UPNren Gobernuak, baina Manu Ayerdiaren sailak gizarteratu du neurri handi batean. Zer da? Funtsean honakoa: hasieran AHT bakarrik bidaiarientzako zen eta 300 km/o-ko abiadura ere har zezakeen; PHTk aurreikusten ditu 160-200 km/o-ko abiadurak eta salgaien garraioa sartzeko de proiektuan; hala ere, 330 km/o-ko abiaduran joateko azpiegitura prestatzen jarraitzen du, Iñigo de la Sernak joan den astean gogorarazi berri duenez.

Sustapen Ministerioaren PHTk plataforma berria aurreikusten du ibilbide osoan eta bidaiarientzat bi geltoki, Tuteran eta Iruñean. Bere ezaugarri nagusia da bi trenbide egingo direla eta, beraz, trenak bi norabidetan ibili ahal izango direla. Honekin bidaiak kopurua

asko ugalduko litzateke. Azken 25 urteetan Espainiako Estatu osoan egiten ari den AHT sarearen gisakoa da eta 3.000-4.000 milioi euroko aurrekontua du. Aurrekontuek, ostera, dantza handia erakusten dute AHT munduan. EAEko *Euskal Y*-ak, adibidez, 6.000 milioiko aurrekontua zuen eta 10.000 milioi eurotan amaitzea aurreikusten da. Trenbide zaharra ere mantenduko litzateke, aldirietarako eta hainbat salgaietarako.

Honiko argudioak dira trenbide mota honen aldekoak: egungoa trenbide sare zaharra eta saturatua dagoela, Europarekiko lotura egokia, lehiakortasun ekonomikoa, energia aurreztea eta komunitate erkidegoen arteko kohesioa. Azken hamar urteetan Estatuan egin diren ikerketa esanguratsuek, ordea, argudio horiek bata bestearen atzean gezurtatzen dituzte. Errentagarritasun sozial eta finantzarioaren aldetik erabat defizitarioak dira; hiri handien arteko lotura indartzen dute, baina tarteko guzietako lurralde kohesioa kaltetu; ez du lortu garraioa trenera eramatea, eta energiaren ikuspegitik ez da aurrezpenik lortzen.

Gaur egungo sarea baliatu

Funtsean, tren lasterraren aurkakoez diote Nafarroa dagoeneko Mediterraneo korridorean dagoela, eta hor egoteko ez dela ezinbestekoa AHT edo PHTriki.

Hauen ustez, logikoena izango litzateke egungo trenbidearen plataforma mantentzea eta honen ondoan trenbide berri bat egitea, horretarako lekua badago eta. Bi trenbideetan hirugarren erraila jarriko litzateke: honek baditu bere konplexutasun teknikoak, baina horrela europar zabalerako trenbidearekin bateragarria litzateke. Sistema honekin 200 km/o-ko abiaduraino iritsi liteke. Gero eta gehiago ari dira jartzen Estatuan, batez ere askoz merkeagoa delako.

1987ko Espainiaren Trenbide Plana

Kontzeptu bat gakoa da bi eredueta: bi trenbide egotea. PHTren proiektuak bi trenbideak proposatzen ditu, lehenago aipatutako ezaugarri guztiekin; eta tren sozialaren aldekoek ere bai, baina egungo plataforma baliatuta. Zergatik egungo plataforma? Nagusiki askoz merkeagoa delako, ingurumenari kalte gutxiago egiten zaiolako eta sozialagoa delako, herrietako geltoki denak mantentzen dituelako.

TREN PUBLIKO ETA SOZIALA

Sustrai Erakuntza erakundeak landutako proposamena da, Nafarroan Prestakuntza Handiko Tren proiektu ofizialari aurkeztu zaion alternatiba oso bakarra. Nafarroa osoan ari dira aurkezten eta honako ezaugarri nagusiak ditu.

- **Trenbidea.** Orain dagoen plataforma baliatuko luke: egun dagoen trenbidea berri eta beste bat egingo luke aldemenean, bi noranzko egon daitezten. Hirugarren errail bat egingo litzateke bi trenbideetan, europar zabalerako trenbidearekin bateragarri izateko. Hainbat tokitan plataforma zati berria beharko litzateke, baina ibilbide gehienean ez. Madrildik proposatzen den plataforma berria ere zaharraren paralelo doa.
- **Geltokiak.** Orain arteko guztiak mantendu, aldirietako zerbitzua hobetu eta indartzeko. Erdigunetik atera beharrean, erdiguneetan daudenak hobetu eta ugaltu, baita Iruñekoa ere. Euren esanetan, Europan ez dira geltokiak hiriguneetatik ateratzen, guztiz alderantziz.
- **Abiadura.** 160-180 km/o bidaia luzetan. Horretarako bidea hesitu beharko litzateke.
- **Alvia trenen maiztasuna handitu.** Madril-Iruñean egunero zortzi bidaia egotea eta Donostia-Bartzelonan, egunero 6 bidaia.
- **Castejon Soria bidea berreskuratu.** Lotura berria izateaz gain, Madrilerako bidaiaren denbora murriztuko luke.
- **Eskualde zirkuitoa indartu.** Horretarako hurrengo lotura zirkuitoa bultzatuko litzateke: Zaragoza - Castejón - Logroño - Miranda de Ebro (Bilboekin lotua) - Gasteiz - Altsasu - Iruñea - Tafalla - Castejón.
- **Salgaietako tren.** Trenbidean behar adinako hobekuntzak egin beharko lirateke 575 metro luzerako merkantzia trena hartzeko.



Sustrai Erakuntzak dozenaka argazki egin ditu –webgunean ditu– eta argi ikusten da badela tokia prestatua bigarren trenbide bat egiteko oraingo plataforman. Goiko argazkietan trenbideak Martzilla eta Castejónen. Beheko argazkian ikusten da zer den hirugarren erraila.

- **Aurrekontua.** 2.000 milioi euro. Sustapen Ministerioaren PHT proiektua 3.000-4.000 euro.

Ekologistak Martxan taldeak ezaguturazi duenez, gainera, abiadura azkarraren kontzeptua estatuko trenbide panoraman sartu aurretik, 1987an trenbide sare berritzeko Trenbide Plan Orokorra egin zuen Espainiako Gobernuak eta honetan jadanik aurreikusten zen egungo trenbideak bikoiztea. Castejon eta

Iruñea artean hori zegoen aurreikusia eta, Santander eta Torrelavega artean hori egiten ari da gaur egun. Sustrai Erakuntzak Nafarroa osoko ibilbidearen dozenaka argazki jarri ditu bere webgunean, erakutsiz nola lehendik lekua utzita dagoen egungo plataforman bi trenbide egiteko.

NAFARROAKO LAU ZATIEN EGOERA

Zaragoza-Castejón. Hasierako proiektuak oraingo trenbidea mantentzea eta hirugarren erraila sartzea aurreikusten zuen. Orain plataforma berria egin nahi da eta, beraz, azterketa informatiboa egin behar da. Nafarroako Gobernuaren arabera horrek urte eta erdi eraman dezake. Gero ingurumen azterketa, oinarriko proiektuak onartu, eraikuntza proiektuak onartu, lizitazioak eta eraikuntza lanak gauzatzeko. Bizpahiru urte erraz pasa daitezke hor eraikuntza lanetan hasi aurretik.

Castejón-Iruñerria (Ezkirotz). Castejonetik Alesbeserako zatia egin da, 15 km. Orain Alesbes eta Erriberri arteko desjabetze prozesuan ari dira eta azaroaren 29an Sustapen Ministerioak Azkoi-en-Erriberri zatiaren lizitazioa iragarri zuen. 2018an hasi nahi dituzte lanak, baina aurrekontu arazo bat egon daiteke. Ez dago argi zer gertatu behar den, baina EAJk ez baditu Mariano Rajoyren Gobernuaren

2018ko aurrekontuak onartzen 2017koak luzatu beharko dira eta haietan ez dago lan hauetarako aurrekonturik.

Ezkirotz-Zuasti. Iruñerriko zatia da hau, tartean geltoki berria aurreikusten duena eta honekin batera Etxabakoizeko etxebizitza proiektu eztabaidatua. Hiru trenbide berri egingo lirateke eta horietarako lurren erreserba eginda dago, Nafarroako Gobernuak dioenez. Ingurumen azterketan diren hainbat korapilotan dago geldi proiektua, Ingurumen Ministerioaren erantzunaren zain.

Zuasti-Euskal Y-a. Ezkion egingo du bat EAEko zatiarekin edo Gasteizen. Ezkio-koa motzagoa da, Eusko Jaurlaritzaren gustukoa, baina baita askoz garestiagoa ere, konplexutasun handiko zatia da eta. 2017a amaitu aurretik azterketa informatiboa amaitu nahi da eta 2018aren amaierarako ingurumen azterketa.

- » Nafarroako Kontuen Ganberak 2016an egindako kalkuluen arabera, AHT kilometroak 15 milioi euro balio du eta hirugarren errailarekin 2-3 milioi
- » Espainian 60.000 milioi euro gastatu dira AHTn azken 30 urteetan eta tamainako inbertsioa eta bidaiari kopuruak kontuan hartuta, inoiz ezingo da errentagarri izan, inbertsioari erantzuteko gisan bederen



ABIADURA HANDIAREN BALANTZEA

Ikerketak. Gero eta gehiago ari da aztertzen abiadura handiko trenen orain arteko balantzea eta, oro har, emaitza oso txarra da. 2015ean, adibidez, Espainian ekonomia ikerketak egiten dituen Fedea fundazioak bi azterketa egin zituen: bata, Ofelia Betancor eta Gerard Llobet-ek egin zuten (Espainiako abiadura handiaren kontabilitate soziala eta finantzarioa); eta bestea, Daniel Albalade eta Germá Bel-ek (Abiadura handiko trena, nazioarteko esperientzia). Ekonomia ikerketak egiten dituen fundazio honen patronatuan dira Espainiako Bankua eta beste dozena bat konpainia handi. Urte berean EHUko Hegoa Institutuak beste bat egin zuen, EHUko hainbat alorretako irakasle talde bat aritu zen elkarlanean. Sarean samur topatu daitezke hirurak. Hona hiruetan mokoka ateratzen diren ondorio nagusietako batzuk.

Errentagarritasuna. Munduan hiru AHT zerbitzu bakarrik dira erabat errentagarriak: Tokio-Osaka Japonian, Paris-Lyon Frantzian eta Jinan-Qingdao Txinan, bereziki lehen biak. Errentagarriak izateko biztanleria multzo oso handiak lotu behar ditu zerbitzuak. Halako zerbitzuak ez ohi dira errentagarriak 500 kilometroko bide batean lehen urtean ez baditu mugitzen 8 milioi bidaiari. Espainian errentagarritasun finantzarioa oso txarra da eta diru publikoak eusten dio orain arte egindako guztiari. Japonian abiadura handian eraikitako kilometro bakoitzeko 158.121 bidaiari daude, Frantzian 61.400 eta Espainian 11.800. Espainian 60.000 milioi euro gastatu dira AHTn azken 30 urteetan eta tamainako inbertsioa eta bidaiari kopuruak kontuan hartuta, inoiz ezingo da errentagarri izan, inbertsioari erantzuteko gisan bederen.

Bidaia kopurua

Bidaia kopurua ere kontzeptu klabea da tren lasterra egitearen aldekoen ardurioetan eta egungo trenbidea saturatua dagoela aipatzen da. Horregatik behar omen dira bi trenbide, kontua da bi ereduak onartzen dituztela bi trenbideak. Ekologistak Martxanek jakinarazi



Nafarroako erdialdean mobilizazio handiak egiten ari dira, besteak beste, bidaia luzeetarako bertan behera utziko dutelako Tafallako geltokia.

ARGAZKIA: AHT GELDITU

Besteak beste, horregatik ez da lortzen zerbitzu hauek pribatizatzea: eraikuntzaren unean kapital pribatua sartzen da, baina kudeaketarenean esku publikoetan utzi ohi du. Espainiaren kasuan, urteko 400 milioi euroko mantenua eskatzen du orain arteko trenbide sareak (2.515 km egin dira eta 1.200 km ari dira eraikitzen).

Energia. Ez da ari ateratzen salgaiarik errepidetik; gainera, abiaduragatik eta bereziki eraikuntza lanetan xahututako energia kopuru handiengatik, ez da egia energia aurrezten denik. Hegoako lanaren arabera, *Euskal Y*-an, kasurik onenean, ez litzateke energiari aurreztuko 2086ra arte. Berezia da eraikuntza lan hau, zati handiena tuneletatik (%60) eta biaduktotatik (%10) pasatzen delako, baina oro har, AHTren eraikuntza lanetan energia asko xahutzen da.

Aldirietako bidaien kalterako. Nafarroan trenbide zaharra mantendu egingo da, baina AHT bideak egin diren leku guztietan, aldirietako bidaien kalterako izan

duenez, estatuan trenbide azpiegiturez arduratzen den ADIFek urtero berritzen dituen datuetan, Nafarroako trenbideak 78 bidaia har ditzake egunero eta, hala ere, batez beste 38 bidaia daude. Trenbidea bikoiztuko balitz, Castejon eta Altsasu artean 200 bidaiatik gora jasotzeko ahalmena izango litzateke.

da. Hain da inbertsio handia eskatzen duena AHTk, gero ez dela bideratzen behar beste aldiriei txukun eusteko, eta zerbitzuak asko kaskartzen dira edo desagertu egiten dira. Espainiako datuetan, aldirietako zerbitzuek 450 milioi pertsona mugitzen dituzte urtean eta AHTk 25 milioi. Nafarroan geltoki txiki gehienak ixten ari dira eta tren azkarrak ertainak ere itxiko ditu, esaterako, Tafallakoa.

Hirugarren erraila. Tren eredu soziala eta AHTren arteko beste eztabaidagai handietako bat da 3. erraila. Iberiar trenbideen zabalera 1.668 mm-koa da eta nazioartekoa 1.435 mm-koa. Beraz, iberiarra europarara egokitzeko hirugarren errail bat jartzen zaio trenbideari. Zaragoza-Castejon zatia horrela aurreikusten zuen hasieran Madril-ek. Badu bere konplexutasun teknikoa, baina gero eta gehiago erabiltzen da, batez ere, askoz merkeagoa delako. Adibidez Barcelona-Tarragona horrela egiten ari da hainbat zatitan eta *Euskal Y*-an ere Astigarraga-Irun horrela doa. Nafarroako Kontuen Ganberak 2016an egindako kalkuluen arabera, AHT kilometroak 15 milioi euro balio du eta hirugarren errailarekin 2-3 milioi.

Salgaiak. Salgaiak errepidetik trenbidera eramateko ez da abiadura handirik behar, gehien jota 80-100 km/o-ko abiadura eramaten dute. Saldutakoaren aurkakoa lortu da Espainiako Estatuan eta azken 20 urteetan merkantzien trenbide trafikoa %60 galdu da, hainbat arrazoi medio, besteak beste ohiko tren zerbitzuaren kalitate galera. AHT ohiko trenbidea baino garestiagoa da salgaietarako eta honek atzera eragin du salgaiak garraio molde honetara iragatea, bereziki esportaziora doazen kasuan.

Datozen hilabeteetan asko azkartuko da trenaren eztabaida eta, iritziak iritzi, argi da ezin dela jokatu 2004an moduan, AHTri buruzko daturik ez bagenu bezala: 25 urteko esperientzia garatu da Estatuan eta, azterketa guztien arabera, ez du zentzurik abiadura azkarraren erudia berdindu garatzeak. ■

EUSKARA

GIDA.EUS

EUSKARAZko
PRODUKTUEN GIDA 2017-18

ALDIZKARIAK

KOMIKIAK

DVDak

APPak

JOKOAK

MUSIKA

LIBURUAK

GURASOENTZAKO MATERIALAK

EKOIZLEAK



www.euskaragida.eus

HARPIDEDUN IZATEAK badu saria!

Harpidetu euskaragida.eus
web orrian, eta hilabetero
ZOKKETAn parte hartuko duzu!

Hilabetero **BULETINA**
jasoko duzu produktu berriein

EUSKARA

ERABILI, OPARITU, KONTSUMITU...

ZOKKETA



* Hilabetero 50€-ko bonoen ZOKKETA,
Euskarazko produktuetan gastatzeko,
gurekin lan egiten duten liburu-dendetan.
Zokketa harpidedun guztien artean egingo da.

155 Kodea

DEMOKRAZIA INTERRUPTUS

Autogobernua likidatu eta politika sozialak blokeatzen harago, Katalunian 155. artikulua aplikatzeak oinarritzako eskubideak murriztu eta mugimendu soberanistaren xedeak oztopatzea bilatzen du.



Alex Romaguera

@AlexRomaguera

Itzulpenak, kopiak alde guztietatik eta pertsonala lekuz kanpo uzten duten aginduak. Horixe da Kataluniako Generalitateko departamentuetako egunerokoa 155. artikulua aplikatu ostean, orain hilabete eta erdi.

Teknikoki, aldatetek ez dute egunerokoa aldatu, automatismoek edozein disfunczio zuzentzen baitute. Baina politikoki, ezer ez da berdin urriaren 28ko gauean Espainiako Estatuko Boletín Ofizialean artikulua argitaratu ostean. Ministro kontseiluaren ondoren, Mariano Rajoyk autogobernua bertan behera geratu zela iragarri eta Europa demokratiakoan parekorik ez duten neurri saldoa inposatu zuen.

Jendetza Bartzelonako Sant Jaume plazan Errepublikan ospatzen ari zen bitartean, Rajoyk kolpe batez Kataluniako exekutiba kargugabetu zuen, eta bide batez, baita beste 185 kargu ere. Prentsa arduradun, zuzendari, idazkari orokor eta konfiantzazko beste kargu horien inguruan pibotatzen zuen Junts pibotatik.

Berehala, Generalitateak atzerrian zuten bulegoak erori ziren, Diplokat, Trantsizio Nazionalerako Aholku Bartzordea eta beste 25 organismo gehiago, Madril eta Bruselako delegatuak eta Jose Lluís Traperu buru zuen Esquadra Mossoen kupularekin batera. Eta zentzugabekeriak borobiltzeko, hauteskunde iragarpena; Puigdemont erbestean eta Govern erdia kartzelan dauzkaten bitartean, egungo panorama politikoari are itxura negargarriagoa emanez.

Mehatxupeko blokeoa

Egiturari burua moztuta, Parlamenta disolbatuta eta Soraya Saénz de Santamariaren gidaritzapean, Katalunia gaur egun esku hartutako administrazioa da. Inertzia burokratikoagatik funtzionatzen badu ere, proiektu asko geldiarazita daude. Horixe bera salatu du aste honetan Bartzelonako Centre d'Art Santa Mònica artistak talde batek, programazioa murriztu behar izan dute hainbat ordainketa egitea falta delako, edo Lleidako Seu Vellako langileek zaharberritze lanak bertan behera utzi behar izan dituzte.

Tutorerik ez duten adin txikikoei *Dirrecció General d'Atenció a la Infància*-k (DGAIA) ematen dien babes indartu behar zuten 230 teknikariren kontratazioa ere bertan behera geratu da, tramiteak mantsotu, diru poltsak atzeratu eta Eskualde Kontseiluetako eta hainbat Diputazioetako hornitzaileekin kontratuak izoztu egin dira.

Blokeo sentsazioa fiskalizazio itogarri batekin nahastu da, departamentuen arabera aldatzen bada ere, bereziki in tentsioa da Ekonomian, Presidentzian, Barne Sailean eta Telekomunikazio eta Informazioen Teknologien Zentroan (CTTI). "Madrilek bidalitako beltzeko gizonak lupaz begiratzen dituzte dokumentu guztiak, Guardia Zibilak berak ere aurkitu ez dituen gauzak bilatuz", dio langile batek.

Panorama honi gehitu zaio bertan behera geratu direla bigarren eskola-ordubak indarrean jartzeko lehiaketa eta

2.700 plaza Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zentroetarako, baita Unibertsitateen Itun Nazionala lantzen ari zen finantzazio erreforma ere, ikasle kopuru handi baten bekak arriskuan jarritz. "Interlokutore politikorik gabe geratu garen bezala, gai hauek mahai gainean betikotzen ari dira", diote USTE-STE-tik.

Osasun sare publikoan ere ez da arazorik falta, 2017ko plan estrategikoa luzatzea behartua egon liteke, *stand by*-an utziz inbertsioak eraikinetarako, arretarako planta berrietarako, kirofano eta ezinbesteko material kirurgikorako. Bitartean, nekazaritzako elikagaien laborategiaren irekiera atzeratu egin dute Laborantza sailean, eta Herri Lanetan hatzak gurutzatuta daude Madrilek ez diezaien datozen hilabeteetarako egutegia aldatu.

2.0 Maccarthismoa

155ak dagoeneko eragin du lehen "kalteen balantzea", eta aztertzea falta den arren, agerikoak dira hirugarren sektorean, hezkuntzan, osasunean, nekazaritzan eta Kataluniaren proiektio publikoan. Madrilek dauka kutxa, eta edozein espediente, kontzesio eta dirulaguntza tramtiazio, bere interesen arabera aplikatzen du.

Partiden kontrolaz gain, kargu publikoei egiten dieten jarraipena gehitu behar da. Komunikazio korporatiboa, prentsa oharrak edo *Diari Oficial de la Generalitat de Catalunya* argitaratzen duen eduki guztiaz gain, idazkari teknikoaren emailak eta Twitterreko mezuak



“Generalitatetik okupak kanpora” oihukatu zuten ehunka lagunek Bartzelonako Sant Jaume plazan.

ACN

ere monitorizatzen dituzte, Servidors.cat eta Intersindicalaren arabera, “155. artikulua aplikazioaren aurkako iritziak edo atxilotuta dauzkaten kontseilari eta lider sozialei bidalitako elkartasun mezuak harrapatzeko”.

Gorroto mezuei dagokionez, jazarpena ere hazi egin da. Zigor Kodearen 578. artikulua aplikatuz, urriaren 1eko Poliziaren oldarraldia sare sozialetan salatu zuten pertsonen aurka, edo José Manuel Mazaren heriotzari buruzko iruzkinak bidali dituztenen kontra ari dira. Matxinada eta sedizioa egotzita Kataluniako exekutiboaren eta Parlamentuko mahaiaren aurkako kereila ikertzeko arduraduna zen Estatuko fiskal ohia.

155. artikulua edo PPren politikaren aurkako edozein kritika zigortzeko saiakera paroxismora heldu da, Espainiako Barne Ministroak webgunean ireki duenean ondorengo atala: “Kataluniako Egoera: biktimen babesa”. Hor kataluniarrei dei egiten diete prozesuak eragindako gorroto delituak salatzea.

Ez dira ahaztu behar deriba honetan Errepublikaren Autodefentsarako Ko-

miteetako (CDR) eta bestelako kolektiboetako kideen aurka irekitako auziak, asanbladak antolatzeagatik Mozal Legea aplikatuz jarritako isunak, presoak babesteko hainbat udaletxetan jarritako pankarten aurkako autoak edo abenduaren 21eko hauteskunde mahaietan presoek etxeratzearen ikono den lazo horia jantzeko debekua.

‘Kausa orokorra’ operazioa

“Normaltasun instituzionala berreskuratzeko” neurri gisa aurkeztu zuten hasieratik 155. artikulua, abenduko hauteskundeak heldu arte. Ez da garbi ikusten, ordea, bere bidea zein izango den, behin finantzak eta erakundeak kontrolpean izan ostean. Kataluniako nortasunaren oinarriko zutabeak aldatzeko gogoia suma baitaiteke: Eskola inklusiboaren eredia eta Kataluniako irrati-telebista sistema publikoa daude jo-puntuak.

Hezkuntzaren markoan, egunez egun indartzen ari dira ustez ikasgeletan egiten den “doktrinamentua” amaitzeko eskatzen duten ahotsak. Hori eskatzen

dute Convivencia Civica Catalana eta Ciudadanosekin lotura duen sindikatu txiki eta ultra Acción para la Mejora de la Enseñanza Secundariak (AMES). Erakunde hauek diotenez, “Puigdemonten eta Junquerasen zorakeria ez partekatzek dakarkien jazarpenari aurre egiten hasi dira hainbat ikasle”.

Kurioso da salaketa hauek epaitegietan amaitu dutela, Seu de Urgelleko zortzi irakasle auzipetaratu dituzte ikasgelan urriaren 1eko Poliziaren kargei buruz hitz egiteagatik, edo Hablemos Español elkarteak Ramon Fonti jarritako kereila, ustez sedizioa sustatzeagatik “ez diogu sekula geletan politikaz hitz egiteari utziko” esan zuelako. Hezkuntza komunitatearen ustez, katedra askatasuna eta murgiltze linguistikoaren eredia murrizteko asmoa dago erasoaldi honen atzean, iraskuntzaren eta Kataluniako kohesio sozialaren giltzarriak dira biak.

Aipatutakoaz gain, Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals-en aurka mehatxuak bata bestearen atzetik zabaltzen ari dira, 155. artikulutik kan-




Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

*Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako*

© 943 650 253
www.tolosakobabarruna.eus



Larai lara lai lara lai...
punturik onena!



Abenduraren 1etik 31ra
zure .EUS domeinua

2=15
urte euro

Eskatu zurea!

#eusegunak
www.domeinuak.eus




ADIC

Generalitateko langileak ere kalera atera dira 155. artikulua aurka eta preso politikoak kaleratzearen alde.

po egonagatik ere, ustezko “neutraltasun” falta egotziz kanpaina handi baten biktima dira. Oraingoz, PP, Ciudadanos eta PSOEk lortu dute hauteskunde-batzordeak debekatzea TV3 eta Catalunya Ràdiori “erbesteko gobernu”, “Puigdemont presidentea” edo “atxilotutako kontseilariak” terminoak erabiltzea, Madrilek kargugabetutako ordezkariak buruz hitz egitean. PPko zerrendaburu Xavier Garcia Albiol, bitartean, proposatu du “TV3 ixtea, ondoren, jende normalaz osatuta, berriz irekitzeko”.

Modu horretara, itxura hartzen doa independentismoaren eta disidentzia politikoaren aurkako “kausa orokorra”. Usaindu zitekeen Lamela epailearen hitzak entzunez Espainiako Auzitegi Nazionalan. Helburu subertsiboak dituen “antolakunde konplexu eta heterogeneo” gisa identifikatu zituen ikertuak. Kontua da 155. artikulua lehen pausoak ikusita, protestak isilarazi eta mugimendu soberanista mapatik ezabatzeko atak parez pare zabaldu dituztela. ■



Araotzeko mendian, kareharriz altxatutako horma zaharra.

IÑAKI SANZ-AZKUE

Araotz

Hiru muskerren topaleku bakarra

Bat, bi eta hiru. Hiru musker-begi zelatan, zeharka begira dauzkagu. Kareharrizko horma zaharrea daude eguzkia hartzen. Hiruek begirada berdina dute, begiak, aldiz, ezberdinak. Izan ere, Araotzeko mendietan musker-begiak hiru dira, hiru espezierenak. Eurek, noski, jakingo dute ezberdinak direla. Ez dute jakingo, ordea, Araotzeko euren horma zaharra dela Euskal Herrian hiru musker espezieak elkartzen diren gune bakarra. Gizakiok ere, udaberri honetan deskubritu dugu Araotzeko altxor hau eta geroztik zientzialarien ikerketa gune da.



Iñaki Sanz-Azkue

Araotz auzoa Oñatin dago. Gipuzkoako auzo bat izateko, ordea, eremuak badu zerbait berezia, zerbait, gainontzeko lekuetan ikusten ez dena: Araotzek Gipuzkoako gainontzeko lekuetan topa daitzkeen klima atlantiarreko espezieak ditu, eremu hezeak eta epelak behar dituztenak. Baina isurialde mediterranearraren gertutasunak kutsatuko balu bezala, Araotzeko mendietan ikus daitzke baita ere paisaia mediterranearreko eremuak, bertako fauna eta flora dituztenak. Bi baldintza horien nahas-

ketak, eta paisaiak berak dituen habitat ezberdinen aberastasunak, Araotz gune berezia bihurtzen dute, fauna eta florarekiko, eta orokorrean, naturarekiko interesa duen edozein pertsona gerturatu eta liluratzeko modukoa.

Euskal Herriko muskerren topalekua

Hiru dira musker espezieak Euskal Herrian: Musker berdea, schreiber muskerra eta gardatxoa. Musker berdea isurialde atlantiarrean, klima hezeagoa den gunean da ohikoena. Schreiber muskerra ere isurialde atlantiarrean mugatzen da, baina musker berdearen behar ezberdinak ditu eta ez da hau bezainbeste aurkitzen. Gardatxoa, gune lehor eta eguzkitsuetakoa, eremu medi-

terranearreko muskerra da, Araban eta Nafarroa hegoaldean ohikoagoa.

Euskal Herrian, gardatxoa eta musker berdea elkarrengandik gertu bizi diren guneak dezente dira. Musker berdea eta schreiber muskerra topatzen diren guneak ere badira batzuk. Schreiber muskerra eta gardatxoa kilometro gutxira bizi diren guneak gutxiago dira, baina hiru muskerrek bailara berean, eremu berean elkarrekin bizi diren guneen artean bakarra ezagutzen da: Araotz.

Gertaera honek, bitxikeria hutsa izatek harago, egundoko garrantzia du narrastien bizimodua eta biologia ikeretzen duten herpetologoentzat. Izan ere, hiru espezieak elkarrekin edo elkarren lehian bizi diren eremu hau laborate-

gi natural bikaina bihurtu daiteke muskerren bizimoduak, lehiak, mikrohabitat eskaerak edota erritmoak zeintzuk diren aztertzeko. Hiru espezieak lehian bizi diren gunean, zein da bakoitzaren estrategia bertan bizirauteko? Muskerren bat gailentzen al da besteekiko? Bizilekua elkarbanatzen dute edo ondo banatuak dituzte bakoitzaren eremuak? Musker hauek bizi diren gainontzeko eremuekiko, ba al dute jorkaera ezberdinik Araotzekoek?

Gardatxoa Araotzen. Aurkikuntza baten kronika

Araotzen hiru muskerrak ikusi izana ez da aspaldiko kontua. Gezurra badirudi ere, XXI. mendean oraindik ere ezezagunak zaizkigu Euskal Herriko espezie askoren banaketak: non badauden, non ez dauden. Eta narrastiez ari bagara, zer esanik ez. Araotzen duela urtebete aurkitu zen schreiber muskerra aurreneko aldiz. Gardatxoaren kasua ere adibide garbia da. Udaberri honen hasiera arte Gipuzkoan ez zen se-

ARAOTZEKO NARRASTIAK

Zirauna (*Anguis fragilis*)

Sugandilak:

Horma sugandila (*Podarcis muralis*)

Sugandila arrea (*Podarcis liolepis*)

Sugandila bizierrulea (*Zootoca vivipara*)

Sugeak:

Iparraldeko suge leuna (*Coronella austriaca*)

Hegoaldeko suge leuna (*Coronella girondica*)

Suge gorbataduna (*Natrix astreptophora*)

Suge biperakara (*Natrix maura*)

Eskulapioren sugea (*Zamenis longissimus*)

Sugegorri kantauriarra (*Vipera seoanei*)

Muskerrak:

Gardatxoa (*Timon lepidus*)

Musker berdea (*Lacerta bilineata*)

Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*)

kula gardatxorik aurkitu. Beraz, esan daiteke, Araotzen udaberri honetan aurkituriko gardatxo populazioa dela Gipuzkoan ezagutzen den bakarra.

Gardatxoa behatu zen lehen egunetik, Aranzadi Zientzia Elkarteak koordinatuta, biologo eta naturzale talde bat Araotzeko lurragi lagintzeko lanetan ari da. Anfibioak, narrastiak, odonatuak, tximeletak eta landareak jomuga hartuta, ingurua ezagutzeko asmoz irteerak eta laginketak burutu dituzte udaberriaren zehar.

Hezeguneak, erreka ertzak, ipuruez osaturiko eremuak... eta hormak, kareharrizko horma zaharrak behatu dituzte, narrastiei eta zehatzago muskerrei buruzko ezagutza handitu nahian.

Araotzeko mendietan, hormak erai-kitzeko harriak banaka-banaka jarri zituen pertsona hark, ordea, ez zuen sekula pentsatuko lurragi banatzeko ez ezik, horma zaharrak muskerrak elkartzeko ere balioko zuenik. Izan ere, Araotzeko kareharrizko horma zaharretan, musker-begiak hiru dira eta hiruak ezberdinak. ■



OÑATI
dabilen herria

MUSKER BERDEA (*LACERTA BILINEATA*)

Isurialde atlantiarreko musker espezie arruntena. Bizkarraldea berdea izan ohi du, puntu txiki beltzez josia askotan eta sabelaldea horia. Emeeek sarri bi edo lau marra zuri izaten dituzte bizkarraren bi aldeetan. Hortik bere izen zientifikoa (*bilineata*). Ugal garaian arrek burualdea urdindua izan ohi dute.

ANDER IZAGIRRE



IÑAKI SANZ-AZKUE

SCHREIBER MUSKERRA (*LACERTA SCHREIBERI*)

Iberiar Penintsulan soilik aurki daiteke. Galizian ugaria da eta Euskal Herrira gerturatzeko den heinean, banaketa estutuz doa: Bizkaitik eta Arabatik sortaldera ere murriztuz doa, eta Gipuzkoa ekialdean ez da oso arrunta, 1980ko hamarkadako aipamen bat da testigantza bakarra, Jaizkibelen. Arrek bizkarraldea berdeagoa izan ohi dute, orban txikiekin eta ugal garaian buru osoa leporaino urdintzen zaie. Emeeek bizkarreko orbanak handiagoak izan ohi dituzte eta bai buru, bai bizkarraldea arrek kolorekoa izan ohi dute. Egoitz Alkorta eta Ander Izagirre dira Araotzen espezie hau aurreneko aldiz ikusi dutenak.

GARDATXOA (*TIMON LEPIDUS*)

Europako muskerrik handiena. Klima mediterranearreko espeziea da, gune irekiak gustuko dituena. Bizkarraldearen alboetan dituen orban urdinak eta tamaina handia dira bere bereizgarri nagusiak. Ibai Ugarte da Araotzen eta beraz, Gipuzkoan lehenbizikoz aldiz ikusi duena.

Araotzen, horma zaharrean ikusi zen lehenbiziko gardatxo heldua (arra). Beste muskerren argazkiak ere Araotzen ateratakoak dira (eta arrak dira).

IKER NOVOA



Mikel Zalbide

“Arnasguneetan ez da eztabaidatzen zein hizkuntzatan egin behar den”

Mikel Zalbide hizkuntzaren soziologian ikerlaria da. Haren ustez, Europa modernoan, apusturik konplexuenetakoa da arnasguneetan (udalerritxikietan) bertan bizitzeko moduak aurkitzea. Herriok bizirik mantentzen badira euskara bizirik mantentzeko aukera izango da.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: UEMA

Mikel Zalbidek *Arnasguneak: etorkizuneko erronkak* hitzaldia eskaini zuen azaroaren 22an UEMAk eta Soziolinguistika Klusterrak elkarrekin antolatutako *Arnasguneak eta udalerritxikietan: gaurko eta biharko erronkak* jardunaldietan. Ondorengo lerroetan Mikel Zalbideren hitzaldiaren laburpena duzue:

“Zer dira arnasguneak? Zergatik dira hain garrantzitsu? Zer ari zaigu gertatzen? Zein dira erronka nagusiak? Zer egin praktikan bizirik eusteko? XX. mendean izan duen garrantziagatik eta mende laurden honetan izango duenagatik 50 ordu beharko genituzke zirrikitu gehienak landu ahal izateko.

Zer dira arnasguneak? Joshua Fishmanek esan zuen: hiztun komunitateak mehartuz doa, hiztun gero eta gutxiago ditu, haien artean gero eta interakzio gutxiago dago, mintzagaiak gero eta mugatuagoak dira, hiztun mugatuak dira, ez dira hiztun estandarrik.

Hemen, Euskal Herri osoan, denean, euskaraz egiteko xedea ezarri zuten ameslari handiek: administrazioan, kalean, familian euskaraz... Esparru gutzietan. Gutxi dira European euskaldunak adina saiatu direnak, saiatu asko saiatu

gara, egin asko egin dugu, gutxiago egin dugu pentsatu. Buruak eta bihotzak bidelagun izan behar dute. Gero eta gehiago pentsatzen da, zorionez.

Baina zer dira bada arnasguneak? Fishmanen ahotik kontatu dugun komunitate horren egoerari, tortillari alegia, buelta ematea. Baina buelta eman zenbat, noraino? Mundu guztiak iritsi behar al du dena euskaraz egitera? Mutur bat da hori. Lekuan-lekuan ahal den tokira igo behar dugu eta begiratu beharko dugu non eta nora igo gaitezkeen. Hizkuntza bizirik dagoen tokietan aritzea hilda dagoen aritzea baino mila bider errazagoa da. Hildakoa berpiztea eta bizirik dagoenari bizirik eustea bi gauza dira. Gero ikusiko dugu arnasguneei bizirik eustea ere oso konplikatu dela. Oso lan zaila, baina bestea mila bider zailagoa da.

Zer dira arnasguneak? Kalera atera eta gauza normaletan (Realari buruz hitz egitea, uso pasea zertan den komentatzea...) euskaraz egitea, eguneroko hizkera gatz eta piperduna izatea. Udaletxean planoak erdaraz daudela? Baina zenbat ordu pasatzen dituzte herritarrek plano horiei begira? Horrek zein eragin du eguneroko mintza-jar-

dunean? Hutsaren hurrengo garrantzia du.

Arnasguneetan, demografia aldeetik nagusi da euskara, inork xaxatzeko arriskurik gabe bizi dira euskaldunak, ez dira gatazka leku, ez dago gatazka iturririk, ez da eztabaidatzen zein hizkuntzatan egin behar den. Euskaraz egiten da eta kito. Ez da interbentziorik behar. Ez da euskaltegirik behar, arnasguneak hobeto eta debalde egiten du, besteak okerrago eta diru kostu ohargarri egiten dutena.

Udalerritxikietan eta arnasguneak terminoak sinonimoak ote dira?

Udalerritxikietan eta arnasguneak ez dira gauza bera. Udalerritxikietan terminoak herritarren mintza-gaitasuna hartzen du oinarri. Aldiz, arnasguneak eguneroko mintza-jardun arrunta kalean eta gizarte bizitza zabalean hartzen du kontuan. Esan dezagun lehenengo batik bat kuantitatiboa dela eta bigarrena nagusiki kualitatiboa.

Gutako asko [hitzaldian bildutakoei ari zen] ez gara arnasguneetan bizi, pentsa gainerakoak. Herritarren gehiena ez da bizi arnasguneetan. He-dabideetan joera ikusi dut esatekoa





‘hau arnasmune bat da’ eta eguna baino argiago dago ez direla arnasmuneak. Euskal liburu eta disko azoka, euskal dantzak egiten dituzten elkarteak, euskal kirol elkarteak... Horiek ez dira arnasmune, horiek ez dute bermatzen egunerokoan euskaraz egitea. Gaztetan ibili nintzen dantza taldeak ez zuen kalea euskaldundu. Gauza bat da biografia partikularrak nolakoak diren, baina horiek ez dute konfiguratzeko gehiengoa. Beste modu batez esanda: badira oso pertsona aberatsak herrialde pobreetan.

Hizkuntzak zer du behar-beharrezko bizitzeko?

Behar-beharrezkoa du ez hiltzea. Hizkuntzak ez dira kolpean hiltzen. Belaualdiz belaualdi ahultzen doaz. Belaunetz belaueneko jarraipenean ikusten da hizkuntzaren bizitzeko ala hiltzeko marka non dagoen, sano dagoen, herren dabilen. Arnasmuneetan belauenetz belaueneko jarraipen horretan bermatzen da hizkuntza ez dela hilko. Erdarazko bi esaera erabil daitezke arnasmuneetan gertatzen dena azaltzeko: ‘*Porque sí*’ eta ‘*ni p’a dios*’. Euskaraz egiten da halaxe

» “Euskal liburu eta disko azoka, euskal dantza elkarteak, euskal kirol elkarteak... Horiek ez dira arnasmune, horiek ez dute bermatzen egunerokoan euskaraz egitea”

egiten delako eta kito. Erdaraz ez da egiten, ezta pentsatu ere.

Belaunetz belaueneko jarraipena ez da gurasoek umeari euskara irakastea, transmititzea, alegia, umeak 6-8 urterekin euskara ondo jakitea. Belaunetz belaueneko jarraipena da umeak euskara ikastea, jolas-orduan euskaraz egitea, ikasketak euskaraz egitea, geroago bere bikotekidearekin euskaraz aritzea, eta umeak izandakoan haiei ere euskaraz egitea”.

Hitzaldiaren bukaeran Mikel Zalbidetik arnasmune diren udalerritxikietan herri giroa mantentzeak duen garrantzia azpimarratu zuen, herrian bizitzeak, eskola izateak, egunean zehar elkarrekin hitz egiteko aukerak izateak, duen berebiziko garrantzia hizkuntza bizirik mantenduko bada. Herri txikietatik aldentzeko joera aipatu zuen, dela eriozketak egitera, dela lanera, dela aisialdiaz gozatzera. Zalbideren ustez, gaur egungo Europa modernoan apusturik konplexuenetakoa da arnasmuneetan (udalerritxikietan) bertan bizitzeko moduak aurkitzea. Herriok bizirik mantentzen badira euskara bizirik mantentzeko aukera izango da. ■

kafeantzokia

1995-2017

12.16 Ruper Ordorika
12.17 Olentzero Jaia
12.21 Akerbeltz
12.22 Zea Mays
12.30 Mikel Urdangarín
12.31 Gabon Zahar Jaia
01.06 Willis Drummond

Agenda osoa
www.kafeantzokia.eus

GURE ERREPUBLIKAREN ALDE



“Jabego pribatua” irakurtzen baduzu bidearen alde batean, bestaldean dago gure errepublika. Hemen kaleak beti izango dira gureak.

Sartu zarela jakingo duzu, ez dizutelako pasaporterik eskatuko, ez baitu axola nondik zatozen, baizik eta nora goazen. Nor zaren ere ez dizu inork galdetuko, nor izan nahi dugun ari gara bilatzen.

Gutxi batzuek dena esan ordez, denek pixka bat esaten dute: horrelakoa da gure errepublika.

“Hori ezin da gertatu” esaten dutenean, “gertatzen ari da” erantzutea da gure errepublika. Hemen ezina, kontatuz da egina.

Debekatuta dagoela dioen mozalari zortzi kamerarekin apuntatzea, “balitz” ordez “bada” esatea; kontsignak, egiturak, programak, gidoiak dardarka jartzea, elkarrekin pentsatzen hastea.

Izen berriak asmatzean sortzen den toponimia: hori da gure errepublika.

“Ongi etorri errefuxiatuak” eta “nik sinesten dizut” gurutzatzen diren lekuan ezagutuko duzu gure errepublika. Hemengo balkoietan banderak ez dira trapu bihurtu.

Zakarra alfonbra azpian gordetzen ez duen portala; eztabaidatzen duten, haserretzen eta berradiskidetzen dakiten bizilagunen eskailera; elkar zaintzen dutenen komunitatea, plazan erabakitzen dutenen boterea.

Barrua daukan edonork kanpora ateratzeko behar duen bozgorailua: horretarako da gure errepublika.

Hitz hauek erabilia mugarik ez dugulako da lurralde hau gure errepublika. Hemen irabazteko daukagu galdutako den guztia.

Behar duzuna har ezazu eta ahal duzuna eman, dirurik ez daukanak asko balio digu. Etorri gure herrira, informatuz gozatu ezazu, lagunekin partekatu, zure sarean hedatu. Mezu bakoitzak deskubritzen digu lurralde berri bat.

Komunikabide honetan hasten da eta denon eskutik eskura ikusiko dugu norainokoa duen zabalera: pasa zaitez gure errepublikara.



Irantzu Abad [medikuaren huts batek kaltetua]



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Eider Madina Berasategi

@xaukenaxauk

“Hanka galdu dugun pertsona orok izan beharko genuke ordezkoa jartzeko eskubidea”

Irantzu Abad Aznarez dut izena, Iruñekoa naiz eta 23 urte ditut. Hanka galdu nuen 14 urte nituela mediku batek meningitisa beharrean gripea diagnostikatu zidalako.

18 urte bete nituenean salaketa jarri nuen eta aurtengo uztailean behin-behineko epaian 250.000 euroko kalte-ordaina zegokidala ebatzi zen arren, oraindik ez dut dirurik jaso, epaileak eta Osasunbideak kopuru hori jasotzeko beste horrenbesteko abala jartzeko eskatzen didatelako. Badakite ezinen dudala inoiz halako dirutzarik berme gisa jarri; are gutxiago orain, ikasle izanik. Protesi berria behar dut aurrekoa min ematen hasi zaidalako, baina ez dut dirurik.

2008ko Gabonetan hasi zen dena. Garai hartan Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko babes-etxe batean bizi nintzen eta Olentzerotarako opariak erostetik bueltan oso ahul nengoen. Min handia nuen lepoan eta hanketan. Hezitzaileek Lehen Arreta Zerbitzuko medikuarenera eraman ninduten eta honek, lepoa eta hankak begiratu ere egin gabe, etxera bidali ninduen parasetamol kutxa errezetatuta. Gripea izanen zela eta zortzi egunen buruan pasako zitzaidala esan zidan, garai hartan gazteen artean meningitis-agerraldia zegoela kontuan hartu gabe. Oso gau txarra pasa nuen sukarragatik dardarka, botaka eta minez. Sekulako zurruntasuna nabari nuen burutik behera, eta hezitzaile batek du-

txan sartzeko gomendatu zidan, horrela kalentura jaitsiko zitzaidalakoan.

Biharamunean okerrago nengoen eta ezin nintzela altxatu ikusita, larrialdietara eraman ninduten. 40,5 graduko sukarra nuen eta hanketan iltzeak banitu bezala nabaritzen nuen, sekulako mina. Bertan ikusi zidaten hankak beltzunez josita nituela; arropak guraizeekin moztu, zunda gastrikoa ipini eta unean bertan ospitaleratu ninduten. Oso larri pasa nituen egun batzuk, gaitza ziztu bizian hedatzen delako. Orduz ordu gorputz-adarretan gero eta kalte handiagoak eragiten ditu eta hanka belzteaz gain, esku-ko zenbait hatzetara ere iritsi zitzaidan, izozketa-sintomen antzera. Hil ala bizi egon nintzen, organo nagusiak kaltetuta, giltzurrunak geldituta eta biriketetan likidoa pilatuta. Abenduaren 24an esan zieten senideei aurrera egingo nuela. Nik ez dut egun haietako oroitzapen gehiegi, baina badakit ikaragarri beldurtu nintzela hanka beltz eta amaren aurpegia ikusita. Ez dakit irudi horiek inoiz ahaztuko ditudan.

Martxora arte egon nintzen ospitalean baina beste bizpahiru urtez ibili nintzen ebakuntza eta mediku artean. Institutura itzuli nintzenean jazarpena pairatu nuen zenbait ikaskiderengandik eta eskola uztea erabaki nuen. Prozesu zaila



izan da, psikologoen eta zirujauen asko lagundu didate baina oraindik, batzuetan, antsietatea sufritzen dut. %66ko elbarritasun-maila aitortu didate baina ez dut inolako pentsiorik jasotzen.

Nire ustez gaixotasunagatik, profesional baten arduragabekeriagatik edo istripu batengatik eskua, besoa edo hanka galdu duen pertsona orok ordezkoa jartzeko eskubidea izan beharko luke. Baina gaur egun, zoritxarrez, dirua duenak soilik jar dezake halakorik. Nafarroan Ortopediara bideratzen diren laguntzak arautzen dituen legea (17/1998 Foru Dekretua) oso zaharkituta dago, duela ia 20 urtekoa da eta pezetatan esleitutako kopuruak eurotan jasotzen dira, irri-garriak dira. Gainera, ez dira errentaren araberakoak, eta hori ez da justua.

Nire auziaren epaiketa ikusle gisa jarraitu behar izan nuen, ez zidaten deklartzeko aukerarik eman. Abokatuak darama kasua eta politikari zenbaitekin bildu naiz, baina ez didate irtenbiderik ematen. Eskertuko nuke auzia bideratzen lagunduko didatela esanen balidate, behintzat. Ez naiz gutizia batengatik mailegua eskatzen ari, gizarte-zerbitzuen ardurapean nengoela, mediku akats batengatik galdutako hankarentzat protesiak ordaintzeko baizik. ■

DUKESAREN ETA HERRIAREN GAILETA



Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

San Petersburgo, 1874ko urtarrilaren 23a. Maria Aleksandrovna dukesa handia -Errusiako Alexander II.a tsarraren alaba- eta Ingalaterrako Alfred printzea -Edinburgoko dukea, Viktoria erreginaren laugarren semea- ezkondu ziren Neguko Jauregian. Urteko ezkontzaren aitzakian, bi gozogile ingelesek, James Peek eta George Hender Freanek, gaileta mota berri bat prestatu zuten eta ezkongai errusiarraren izena ipini zioten: *Marie biscuit*.

Gozoki berria espresuki bostetako tearekin hartzeko sortu zuten, ordura arte egunero kontsumitu ohi zituzten gailetetek busti eta berehala desegiteko joera ezatsegina baitzeukaten. Peek, Frean & Co konpainiak ekoiztutakoek, aldiz, duin eta kurruskari eusten zieten murgilei. Produktua prest zeukaten ezkontza baino lehen ere, baina publizitate egokia behar zuten kontsumitzaile britainiarrik liluratzeko. Ez zen garaiko pertsona ezagun baten izena zeukan lehen gozokia; Victoria erreginak, Albert printzeak edo Garibaldik ere beren gailetak zituzten. Eta hala, errege familiarekin lotuta, produktuak bide samurragoa izan zuen merkatu britainiarrean, lehenik, eta atzerrian, aurrerago.

Maria gailetan jatorriari buruzko beste bertsio oker bat zabaldu da luzaroan: Eugenio Fontaneda espainiarrak asmatu zituela eta Maria bilobaren izena jarri ziela. Baina Espainian kontsumitu ziren lehen Maria gailetak Peek & Freanek berak ekoiztutakoak ziren. Inportatutako gaileta horiek, ordea, oso garestiak ziren, 5,5 pezeta kiloak.

Espainiako Estatuko lehen Maria gailetak Gipuzkoan ekoiztu zituzten, Errenteriako Olibeten. 1886an sortutako fabrikak oragailu mekanikoak, ijekailuak eta estatuko lehen kate-labeak zituen. Hala, prezioa erdira jaitsi zen, 2,5 pezeta kiloak, baina luxuzko produktua zen



Errenterian egiten ziren Maria Olibet gailetan iragarkia. Juan Ramón Jiménez Nobel saridunak oso gustuko omen zituen.

oraindik. Juan Ramón Jiménez idazlearentzat behintzat bai. Zenobia Camprubi idazle eta hizkuntzalariak, erbestean zela, zera idatzi zion Juan Guerrero Ruiz editoreari: "Ezusteko handiena J.R.rentzat Maria Olibet gailetak lirateke, gauza legendario eta eskuraezintzat jotzen baititu beti".

Aurrerago Bilbon 1907an sortutako Artiach eta Fontaneda bera hasi ziren Mariak egiten. Baina benetako bultzada 36ko gerra amaituta jasoko zuten gailetetek, frankismoaren babesean. 1950eko hamarkadan, irin eta azukre gainproduktzioa Gaztelako Mantxako -nagusiki, Palentziako- industria gailetagileran bideratu zuten eta erregimenak Espainiaren susperraldi ekonomikoaren ikurretako bat bihurtu nahi izan zuen Maria.

Baina Maria fenomeno beste herrialde askotan ere zabaldu zen, kostua merketu ahala. Egun, munduko 40tik gora herrialdetan ekoizten dira. Eta, abizenak abizen, ia denek dute dukesa handiaren izena: Maria, Marie, Marietta, Mariya, Mariebon, Mariakaakje, Mariekjeks... ■



Zubiaurrena, 5 behea · Usurbil
☎ 943 371 042



Etxebeste, 3 · Usurbil
943 361 106
www.facebook.com/marijearropadenda



Ogiaren egia
Garparsoro OKINDEGIA
Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak
Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

Hotzaren hotzez, hotza hautsi arte



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Hotzak fruituak ontzen ditu. Hasten hasteko, askotariko fruitu motak daude aipatu behar da; denek ez dute, ezta gutxiago ere, jokabide bera eta bakarra. Hortaz, orokorrean aipatuko ditugu beren kontuak.

Daramatzen haziak heldutasunera ekarri dituenan, fruituak berak hartuko du umotzeko bidea. Fruitua ontzeko lanean aldagai ugarik eragiten du. Sasoiak da ontzearen arrazoi bat; behin sasoiak etorrita ekingo dio. Denbora da beste bat. Denborak aurrera egin ahala, fruituak ezin dio eutsi berde eta tinko, bigundu, beratu eta usteltzera joko du. Esaerak honela dio: "Denborak eta lastoak ontzen ditu mizpirak". Inguruak ere zeresana badu. Gaitzek eta izurriteek gustuko dituzte fruituak, animaliek bezala. Fruitua janaria pilatzen duen zati bat da, eta goseak ez du barkatzen. Horiek kosk edo zizta egin duten tokian zauria, eta zauritik alferrik galtzea, usteltzea... abiatzen dira.

Eguraldiak ere aldaketak sustatuko ditu fruituan. Batzuk txarrerako: haizetearen mugimenduak adarraren kontra jotzea, kazkabarrak zauriak, eguzkiak erreduurak, lehorteak zikoiztea, eta abar. Era berean fruituaren etorkizunaren onerako laguntza ere badakar eguraldiak: urak, eguzkiak eta beroak, tamai-



nan, fruituak alegorrituko ditu; osatu egingo dira, hazi eta bigundu. Kolore aldaketa dakar, jeneralean, bide horrek. Heldutasunaren adierazle. Fruitua erakargarri egingo da animalientzat; gozatze bidea da zoritzea. Gozotik jan eta haziak barreiatuko dituzte.

Hotzak ere laguntzen du. Fruitu berantiarrek ematen dituzten fruitu arbolek udazkeneko hotza ezagutzen dute. Badakite igalgiei gainean eutsita lurtean baino errazago harrapatuko dituela ho-

tzak. Hotz hori gogorra bada, fruitua izoztu egingo da. Izozteak barruan duen ura galtzea dakar, eta gozotasuna ematen dioten osagaiak are eta kontzentratuago geratuko dira: askoz gozoago, alegia. Ez du luze iraungo, baina jateko...

Hotzak lirindutako fruituak "izotzeko edariak" egiteko erabiltzen dira. Arrazonamendua hauxe da: gozoago, alkohol gehiago, hartxidura etenarazi eta edari gozo-alkoholiko sendoa lortu. Izotzeko sagardoak, ardoak... ■



Goizper Group

Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago berrikuntzak egiten eta ingurumenarekin konprometituta.



Industrialia



Inhiztadura



Bioteknologia



Lehen sektorea bizkortzeko herri plana Leitzan



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: LEITZAKO UDALA



Berdea eta baserriz inguratutako herri txikia da Leitza, nekazaritzari eta abeltzantzari oso lotua egon dena. Azken urteetako joera orokorrek bat eginez, ordea, lehen sektorearen gainbehera nabarmena bizitu du herriak, eta baserriar gutxi dute ogibide lan hori gaur egun. Gainbehera horri aurre egin eta lehen sektorea berpizteko asmoz, diagnostikoa osatu eta parte hartze prozesua martxan jarri du Leitzako Udalak. Aliatu garrantzitsu izan dute LeitzEKO Kontsumo Taldea.

Egungo egoeraren argazkia

Leitzaldeko egoera erreala azaltzeko diagnostikoa egitea izan zen udalak emandako lehen urratsa. “42 inkesta egin ziren Leitzako baserrietan eta 15 Aresokoetan. Kontsumo taldeak jada komertzio eta ostalariekin egina zuen lanketa, beraz, kontsumitzaileen alorra zen falta zena”. Udalak pertsona bat kontratatu zuen bi hilabetez herritarren artean inkestak egiteko. Ekoizleen alorrean, ondorio nagusia da sektorea zahartu dela. “Azken urteetako politika nagusiek nekazaritzako elikagaien industria handiari eman diete bultzada,

eta hemengo baserri txikien eredurako ez dute balio politika horiek”, azaldu du Azkargortak. Sektorearen gehiengoan etsipena ekarri du horrek, eta ondorioz, errelebo falta. Komertzio, jatetxe eta kontsumitzaileen artean egindako galdeketez, ordea, badakarte argi izpi bat: bertako produktuak kontsumitzeko interesa eta gogoia egon badago.

Etorkizuna elkarrekin eraikiz

“Diagnostikoa eskutan, egoera honi buelta emateko neurri batzuk proposatu genituen”, dio zinegotziak. Horrela abiatu zuten herritar guztiei irekia zegoen parte-hartze prozesua, lehen sektorea indartzeko eta bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko ekintza plan bat diseinatzeko helburuarekin. “Ez gabiltza baserriarrak laguntzen, herri osoarentzako onurak bilatzen baizik. Nekazariak hobeto biziko dira, baina dendariek ere herriko produktuak izanen dituzte saltzeko, denok osasuntsuago janen dugu, paisaia zainduko dugu...”.

Prozesua oso aberatsa izan da Azkargortaren arabera. Jende askok hartu du parte hiru saioretan, profil eta adin ezberdinetakoak gainera. Epe motzean

bertako produktuak identifikatzeko marka edo zigilu bat eta ekoizleen egitura bat sortzea zehaztu dituzte prozesuan, besteak beste. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Abenduak 6-10: Durango

Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 12: Segura

19:00etan Kultur Etxean Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 14: Gernika-Lumo

18:30ean Astran Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 18: Gasteiz

18:00etan Zabalganako gizarte etxean Landareak Lantzen aurkezpena.

BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA 17

Abenduak 17

OTXANDIO

EGITARAUA

- Baserriko produktuen salmenta
- Artisauen erakusketa eta salmenta
- EH-ko urrezko aizkoraren final-aurrekoak: *(Aitzol Atutxa vs Mieltxo Mindegia)*
- Harrijasotzaileak
- Goiz guztian zehar GESALTZAKO txarangak kaleak girotuko dauz



GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"HERNANIKO ETA INGURUETAKO ANFIBIOAK ETA NARRASTIAK"

2

Putzuetatik beha ditugun begitxoak ezagutzeko liburua

Iñaki Sanz-Azkue biologoak eta Egoitz Alkorta Ingurugiro Zientzietan lizentziatuak gida-liburu berria argitaratu dute. Hernani inguruan aurki daitezkeen anfibioak eta narrastiak identifikatzen dituzte bertan eta ondoren banan bana aurkeztu, argazki ederrez osatuta: izen zientifikoa, euskara batuan duena eta herritarrek emandako izenak, zein txokotan bizi den, zer jaten duen, urtean zer bizi fase izaten dituen, bitxikeriaren bat... Oso era labor eta zehatzean, begia erakartzen duten elementu grafikoekin antolatuta. Amaieran, herrian entzundako kondairak, narrastiak ikustera joateko proposamenak eta haurrei behaketan laguntzeko hainbat gako ere ematen ditu. Argazkian, Ereñotzu auzoan liburua aurkeztu zutenean (*Hernaniko Kronikarena*).



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARANZADI

www.aranzadi.eus

#bioaniztasuna
#zientzia
#herrijakintza
#aisialdihezitzailea

Abenduko sariak

1




Feminizidioa Euskadin eta Nafarroan
2 liburu

2



Hernaniko eta inguruetako anfibioak eta narrastiak
3 liburu

3



Energia Trantsizioak: Piztu Aldaketa! DVDa
3 ale

4



Arrasateko kooperatibagintzaren errokek eta dilemak
2 liburuxka

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



ARGIA.EUS WEBGUNE BERRITUA

Eragileen sarea sarean



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Lerrook irakurtzerako, argia.eus webgunean sartzeko ohiturarik baduzu behintzat, irakurle, agian ikusia izango duzu orain kontatzera noan albistea. Aldaketak dagoeneko ikusgai daude sarean, azken hilabeteotako lan luzearen emaitza. Webgune berritua dugu. Astero xamar astekariko komunitatearen txoko hau bisitatzen baduzu, akaso leitua izango zenuen berrikuntza lanetan genbiltzala. Lehen iragarpena zena, baina, orain errealitate bilakatu dugu.

Nazioarteko hainbat hedabideren itxurari eta komunikazioko azken joerei erreparatuta egindako lana da argia.eus berritua, etxe honek duela 20 urte Internetera saltatzeko egindako apustua ospatzeko aitzakiarekin egina. Aurpegi berria dugu sarean.

Diseinua ez da, ordea, aldatu den bakarra. Txoko berri bat ireki dugu Euskal Herriko elkarte eta kolektiboentzat. Eragileen komunitate bat sortzera goaz. Abenduaren 4tik aurrera, elkarte, kolektibo, eragile, mugimendu bakoitzak bere espazioa izan dezake ARGIAN, bere irakurketak, agenda, deialdiak eta abar zabaltzeko.

Zorionez, Euskal Herrian bada herri mugimendu zabal bat hamaika gai lantzen dituen, baina talde txikia da

ARGIArena, eta iritsi nahi eta ezin genbiltzan. Alegia, elkarte eta kolektiboetik iritsitako deialdi eta ekintzak albiste bihurtu eta zabaltzeko, baina ezin. Konponbidea? Herri mugimenduari leku bat atondu eta gure etxean sartzeko giltza ematea. Horrela, eragile bakoitzak elikatu ahal izango du bere txokoa, presentzia irabaziko dute talde hauek guztiek ARGIAN, eta informazioak zabalpen handiagoa izango du. Gainera, etorkizun hurbilean ikusten dugu eragile hauek ere argia.eus-eko kanal tematikoen sisteman txertatzeko aukera.

“Eta zer gertatzen da dagoeneko webgune eta blogak dituzten elkarteekin?” galdetu dut nik. Bada eragileen txoko hau ez da soilik elikatuko testu edo argazkiak bertan sartuz. Bloga edo webgunea duten taldeek jada zintzilikatuta duten informazioa gurean automatikoki txertatu ahal izango dute, rss bidez, bi bider idazten ibili behar izan gabe.

Bi baldintza izango dira bete beharrekoak erabiltzaile bezala erregistratzeko: elkarte edo kolektiboa izatea, eta informazioa euskara hutsean ematea. Hori bezain erraza izanik eta eskaintzen dituen abantaila guztiak ikusita... aukera galduko duzu? Saretu ezazu zure eragilea ARGIAN! ■

Bertso Txapelketako finalerako sarrerak zozketan ARGIA jendearentzat

Barakaldoko BECerauko lau sarrera zozketatuko ditugu ARGIA JENDEAREN artean: bi sarrera bikoitz izango dira. Zozketan parte hartu nahi baduzu, idatzi komunitatea@argia.eus helbidera eta eman izen abizenak, telefonoa eta helbidea.

Parte hartzeko azken eguna abenduaren 10a izango da, eta hurrengo egunean egingo dugu zozketa, irabazlea www.argia.eus webgunean iragarri.



Sermos Galizako lagun bista

Euskararen Kontseiluak hitzordua jarririk, azaroaren 16an elkartu ginen galego hutsezko astekariarekin bazkaritan: irudian, ARGIA Jendea den Oria Txiki tabernako terrazan. Egunerokoari bakoitzak nola egiten dion aurre azaltzeko baliatu genuen elkarrekin emandako denbora, eta batez ere, medio bakoitzak etorkizun hurbilerako ditugun ametsak partekatzeko. Elkarrekin ospa ditzagula bakoitzaren garaipen txikiak!



Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak:

Bidali xletona@argia.eus-era alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta merezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrendara sartzen ditugu.

Aritz Branton, Booktegi.eus webguneko arduraduna

“Zaila da ohiturak aldatzea, baina liburu elektronikoak abantaila nabarmenak ditu”

Baditu –besteren artean– bi gabezia euskal literaturak: liburu elektronikoen urritasuna eta literatur lanen ibilbide laburra. Aritz Brantonek Booktegi ataria sortu du joera horiek aldatzeko. Euskarazko lanak formatu digital zainduan eta doan eskaintzen ditu bertan. Hilabete gutxian 9.000 lagunek bisitatu dute webgunea.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

Izenak ez, baina abizenak eta guztiz ez-kutatzen asmatzen ez duen azentuak salatzen dute Aritz Branton. Ez da sudur finegia behar abizen horren atzean istoriorik badela usaintzeko. Topikoak betez, maiteminak jota erabaki zuen Erresuma Batua utzi eta Euskal Herrira etortzea. Pertsona hark adina maitemindu zuen bere hizkuntzak ordea. Hamabi urte dira etorri zela, eta nahikoa izan ditu bertako literaturan murgildu ez ezik, astintzen ahalegintzeko.

Zergatik egin zitzaizun horren deigarri euskara?

Filologia eta Historia ikasi nituen nik, eta beti izan dut hizkuntzak ezagutzeko interesa. Baina euskaratik erakarri ninduen ez zen bere jatorri urrun eta ezezaguna izan. Euskararen sistema da miraria iruditzen zaidana. Oso elementu gutxiarekin asko egin dezakegu, eta oso modu naturalean gainera, sintaxiari esker batez ere. Hitzen ordenak esaldiari ematen dion ñabardura adibidez, oso berezia iruditzen zait. Bere ezaugarrien berri izan bezain laster erabaki nuen ikasi eta neure egungo nuela.

Eta egin duzu, bai. Hainbeste non, gaur egun, euskarazko testuak itzultzen dituzun...

Bai, nire ogibidea itzulpengintza da, eta 11 itzulpen enpresa sortu nuen beste bi bazkiderekin batera. Baina itzultzaile xumea naiz, ez pentsa.

Tartean, Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* eleberria itzuli duzu ingelesera. Nola sartu zinen halako lanean?

Nire ekimenez izan zen. Beharrezkoa iruditzen zitzaidan ingelesez ere izatea, gaur egungo Euskal Herria oso ongi islatzen duelako. Renoko Unibertsitatean proposatu nuen, eta haiek onartzearekin batera Etxepare Institutuak diru-laguntza bat eman zigun. Aurrerago erabaki zuten Madrilgo Hispabooks argitaletxeak aterako zuela, eta egia esan horrek dena jarri zuen kolokan. Arazoak izan genituen: zuzenketa egin behar zuenak ez zekien euskaraz, eta beraz, gaztelaniazko itzulpenari erreparatu zioten nirea zuzentzeko. Baina kontua da gaztelaniazko itzulpena oso desberdina dela; paragrafo osoak falta zaizkio. Horrekin nahikoa ez eta

esan zidaten bertakoak ziren hitz batzuk ez zituztela ingelesera aldatu nahi. Ez zituzten euskaraz utzi nahi ordea, gaztelaniaz baizik. Esaterako, “farm” beharrean “caserio” jarri nahi zuten. Azkenean, borrokatu nuen pixka bat eta itzuli gabe gelditu diren hitzak euskaraz jarri dituzte.

Pentsatzen dut Erresuma Batuko zure lagunek nekez ulertuko dutela euskal literaturak zuzen sortzen duen interesa. Baduzu haiei zer gomendatu? Nahikoa itzultzen da euskaratik ingelesera?

Zaila da ezer gomendatzea itzulpen faltagatik. Zerbait badago: Atxagaren baten bat, Kirmen Uriberen besteren bat... Baina ezer gutxi. Itzulpen guztiek gaztelaniaren galbahea pasa behar dute lehenengo, eta hori delitua da. Dena den, bat hautatu beharko banu, nire gomendioa Harkaitz Canoren *Twist* izango litzateke, ziur asko.

Goazen Booktegiara. Zerk bultzatu zintuen itzulpegintzatik apur bat urrunduta eta halako zerbait sortzera?

Booktegi 11 itzulpen enpresak egin du



berez, baina proiektua nik aurkeztu nuen enpresan. Bazkideek baietz esan zidaten, baina baldintza batekin: nik arduratu beharko nuen guztiaz. Eta halaxe izan da.

Bi ahulezi ikusten nituen euskal literaturan: liburu elektronikoaren erabilera urria batetik; eta bestetik, liburu askok kalitate handia izan arren, ibilbide laburra egiten dutela. Askok gelditzen dira apaletan ehun irakurle eskas izan ondoren. Paperean argitaratzea garestia delako plazaratzen ez diren liburuak ere badaude. Nik gabezi horiek nerabiltzan buruan, eta bururatu zitzaidan halako liburuak Booktegi bidez doan eskaintzea.

Susa bada aitzindarietako bat formatu elektronikoa edo digitalari dagokienean. Sarean erosgai eta eskura daude plazaratu dituzten liburu gehientsuenak.

Harreman ona dugu Susarekin, eta beraien liburu batzuk ere baditugu katalogoan. Laster gehiago izango ditugu gainera. Dena den, Booktegiren asmoa ez da inori kalterik egitea, kontrakoa esango nuke: literatura gehiago eskainiz

» “Krisi askoren erdian gaude: literaturak garrantzia galdu du oro har, eta uste dut euskara eta euskalgintza ere garai txarrean daudela”

» “Euskadi Irratiko Faktorian astero liburu batzuk gomendatzen dituzte eta normalean ez dira euskarazkoak, gaztelaniazkoak baizik. Ulertezina egiten zait”

literaturara gerturatzen den jende kopurua handitzea nahi dugu. Beste liburu batzuei eta beste publiko batzuei tokia egin nahi genieke.

Aspaldi berrargitaratu gabeko liburuak sarean eskaintzea bada bide interesgarria. Landu duzue harremana beste argitaletxeekin?

Ez dugu asko landu ez, baina sakondu nahi dugu horretan. Besteak beste, Anjel Lertxundiren *Hunik arrats artean* argitaratuko dugu laister. Idazle batzuekin harremanetan jarri eta euren ipuinen bilduma bat osatzeko asmoa ere badugu, liburu batetik eta bestetik hartuz. Horretarako ere beharrezkoa izango da argitaletxeen konplizitatea.

Diozunez, euskarazko literatura apenas irakurtzen da formatu elektronikoetan. Zergatik uste duzu dela hala?

Alde batetik, batzuetan zaila da ohi-turak aldatzea. Bestetik, krisi askoren erdian gaude. Literaturak garrantzia galdu du, oro har. Denbora asko ematen dugu mugikorrari begira, eta liburuak galtzen ari gara, edo gu galtzen ari da

liburua. Bestetik, uste dut euskara eta euskalgintza ere garai txarrean daudela. Horren guztiaren batura dela esango nuke. Gu ez gara liburu elektronikoen talibanak. Paperezko liburuak ere maitatzen ditugu. Baina elektronikoa bada abantaila nabarmenak dituen beste bide bat: hitz bat hautatu eta zuzenean hiztegia ikusteko aukera dago; liburu bakarren mordo bat eraman daitezke; eta gainera askoz merkeagoa da liburuak egitea.

Liburuek ibilbide laburregia egiten dutela ere badiozu. Badago zer hobetua sustapenean?

Oro har interes gutxi dago euskarari dagokionez, eta zer esanik ez euskarazko literaturaz. Liburutegi batean sartzean ere, euskarazko liburuak bazter batean daude. Euskadi Irratian, Faktorian astero liburu batzuk gomendatzen dituzte, eta normalean ez dira euskarazkoak, ezta itzulpenak ere, gaztelaniazkoak baizik. Hori, kanpotik ikusita, ulertezina egiten zait. Ziur nago Radio Euskadi eta ETB2n ere ez zaiola tokirik egiten. Eta noski, Sautrela desagertzea ere oso

albiste txarra da. Bere kultura zaindu eta bultzatzen ez duen herri batek jai du. Guk, gure xumean, badugu ikus-entzunezko elkarrizketak eta antzekoak lantzeko asmoa.

Beste argitaletxe batzuek baztertutako testuak ere jasoko dituzue akaso. Kalitatea da argitaratu edo ez erabakitzeke irizpidea?

Asko ez, baina hilean behin-edo jasotzen dugu proposamenen bat. Orain arte, behin bakarrik eman dugu ezezkoa kalitate faltagatik, eta beste behin esku-bideekin zegoen arazo bat medio. Baina kalitatea garrantzitsua da, bai. Booktegin ez dugu edozer plazaratzen.

Jasotzen duzuen editatu egiten duzue. Neurri batean, ataria baino gehiago argitaletxea zarete.

Kasu batzuetan auto-edizioa dela esan daiteke, baina berredizio lana gure gain hartzen dugu. Zuzenketaz gain, saiatzen gara balioa gehitzen testua elkarrizketekin, irakurketekin edo ilustrazioekin osatuz. Eskubideak idazlearenak dira beti, hori bai.

Ba al duzue babesik erakunde publikoren baten aldetik?

Diru-laguntza txiki bat eskatu dugu, eta oraindik ez dakigu jasoko dugun edo ez. Lan hau doan egiten dugu, baina lan handia da: edizioa, sustapena, webgunea bera... Uste dut elkarlanerako bide asko daudela erakunde publikoekin: eskoletan, adibidez, edo zergatik ez, klasi-koen eskubideak erosiz. Azken finean, Booktegin egiten duguna zerbitzu publikoa ere bada.

Argitaletxe gehienek urtearen amaieran, Durangoko Azokaren buelta honetan iragartzen dituzten euren nobedade gehienak. Zein izango da Bookteginen uzta berria?

Liburu asko daude zain: Juan Luis Zabalen poesia liburu bat, Aritz Galarragaren artikulua-bilduma, Bertsolari filmaren liburu bat, Uxue Alberdiren bertsoak, Lutxo Egiaren antzerki-lan bat, Anjel Lertxundiren *Hunik arrats artean*, Joxe Mari Pastorren *Darwin eta gu* bilduma, Markos Zapiainen bi hausnarketa liburu eta abar. Webgunea ere berrituko dugu gainera. ■



Kalean da abenduko

aizu!

- Unai Pelayo *Pelax arin-arin*
- 52. Durangoko Azoka: sormenaren lurraldean barrena
- Landa eremuko metroak
- Martxoaren 3ko gertakariak zinemara
- Bertso eta lan

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus

PAGOA
kafe antzokia
OIARTZUN

ABENDUAK

16

22:00

SARRERAK

A: 8€

T: 10€

OIARTZUN
AMAZKAR, ELORSORO,
PAGOA KAFE ANTZOKIA.

DONOSTIA
DONOSTI ROCK.

ERRETERIA
ARKAITZA TABERNA.

ONLINE
TICKETMASTER, TICKETEA,
COLECTIVIA, MAUKA,
OFERPLAN, KUTXABANK.

ITOIZ
TALDEAREN OMENEZ

FOISIS JAUNAK

+ XANOLIVE + ESTHER SOUND SISTER



www.pagoa.eus

PAGOALDEA 7,
20180 OIARTZUN

TEL. 619 421 153

OSTIRALAK ETA LARUNBATAK
17:00 - 06:00



berria

ARGIA

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



PAGOA®

EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Kalifornia bat guztiontzat



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga


Ameriketako Estatu Batuak utzi gabe, Kalifornia. Trumpatzerik ez, 1992an gaude, dei diezaiozun Disneyland-Bushland. Joseba Gabilondo izeneko gazte bizargabe batek, ahoan ere bilo askorik ez duenak, eskutitzak bidaltzen ditu, eta argitaratu egiten dizkiote Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (zehatzago izateko, *Zabalik* euskarazko gehigarrian): “Norberaren erokeriak edonola bota eta gainera kobratzea –gero konturatu naiz negozioa hain zuzen horretan datzala”. Intelektuala izan nahi zuen (“familia erabat errural-proletario bateko mugatasun kultural guztiak konpentsatu nahiz edo”), politikan aurrerakoa eta engaiatua, eta gainera oso tipo coola, alegia fina-serioa-elegantea. “Jean-Paul Sartre izan nahi zuen gazte hark punk kultural baten aukera hartu du”, ordea.

Lau urte eta erdi darama atzerrian (“eta oraingoz ez zait itzultzerik bururatu”), nahikoa “geroko Estatu Batuen sinbolo” den Kaliforniaz aritzeko. Hitzaurrean esaten da: “Gabilondo Kaliforniaz ari zaigunean, Kalifornia azal-azalean besterik ez da ageri (Jainkoari eskerrak!)”.

**Kaliforniatik
bihotzez**

JOSEBA GABILONDO

Elkar, 1992



Ez nago ados: Gabilondo Kaliforniaz ari zaigunean, sakon ageri zaigu Kalifornia (nori eskerrak?). “Hemen” hitza zenbat aldiz agertzen den kontatzea baino ez dugu. Gero egia da Kaliforniaz ari denean, ari dela AEBez, eta Euskal Herriaz, eta oro har XX. gizaldi amaieraren garraztasunaz eta frustrazioez. Aitzakia baita Kalifornia: hitz egiteko utopiaz, nostalgiaz, auzo globalaz, biolentziaz, erosle tribuez, gizarte-lotura handirik gabeko bitzta zorionsuaz, iraultza postindustrialaz, hiperespazioaz, betiko esplotazio kapitalistaz, deserriaz, modaz, erostearen erotikaz, euskaldunen garai unibertsalen bukaeraz; hitz egiteko, indibiduen ekintzetatik eta egitura sozialetatik abiatu eta, azken batean, sakoneko arrazoiez. “Inbasio kultural amerikar inperialistaren enbaxadore” izanik, baina “bitzta amerikarraren kontraesan eta arazoak ikuspuntu ahalik eta zorrotzetik azaltzen” saiatuz.

Eta erakutsiz badela Kalifornia bat guztiontzat, “Turkia edo Urretxu aldean lekturik badago ere”. ■

Gure herriaren orainaz eta geroaz pentsarazten duten liburuak



**DEMOKRAZIAREN
PRIBATIZAZIOA**

Kapitalismo Globala,
Europa eta Euskal
Lurraldeak

Jule Goikoetxea



**NORA GOAZ
EUSKALDUNTASUN
HONEKIN?**

Joxe Manuel Odriozola

www.elkarargialetxea.eus

elkar

» DISKOA

Folkak ba ote du mugarik?



Iker Barandiaran

Mugaldekoak taldeak Bera du ardatz. Handik bueltan sortu ziren kideak eta gainera, non bestela batzen dira propio mugen jatorrizko izendapena, musikarekin lotutako sen berezia eta poesia? Azken hori uste dut berezkoa dutela jatorritik harago, baina tira! Hirukoteak hamalau urte beteko ditu aurki musika eta literatura batzeko asmoz ia oharkabean hasi zenetik: poesia liburu bat zuzenean aurkezteko nahia, pasio antzekoak eta anai-arreben antzeko loturak ez ditu ordutik banandu. Erritmoa, baina, patxadatsua da oso: 2006an *Biziago sentitzeak dakarren muga* disko-liburua kaleratu zuten eta horixe aitzakia hartuta hara eta hona bidaiatu ostean, 2012an *Begiak lekuko* lanarekin bueltan itzuli ziren, beste kultura eta koordenadatarako idazleen testuak guregana ekarri eta musikatuz, apainduz, girotuz...

Orain berpiztu zaizkigu *Galdemoduen trilogia* besapean, eta guk berau mesanotxean beharko dugu izan, behar duen bezala patxadaz eta lasaitasunez disfru-

Galdemoduen trilogia

MUGALDEKOAK


Gaztelupeko Hotsak, 2017



tatzeko. Oraingoan ere folka dute oinarri, folk anitza, nahiz eta AEBetakoak gailentzen den.

16 pieza batu dituzte, galde-moduz, ironiaz eta zer-pentsaz jositakoak guztiak. Hausnarketa sana egiten dute eta sakona, arina baina sarkorra. Eta horiei apaindura leun eta dotoreak jantzi dizkiete. *Bizitzeko inbentarioa* countrytik abiatzen da, baina popetik ere edaten du. *Botika horizontala*-k cabareta, rock baziloia, Arthur Leeren arima eta surfaren dotorezia ditu baitan. *Etsaiak*-ek folk eta rockaren mugan, Petti herrikidea ekarri dit gogora; *Emazteki langilea*-n bere tamainan berpizten dena. *Beldurrak ez du barkatzen*-ek distortsioa erakartzen du. *Onddo bila*-k oinarritzko rock-and-rola bluesera amiltzen du. Erraz irudikatu dezakegu *Parpailaren koplak* piano alboan jarrita abesten. *Bi kopa bete* balada folky bete da. *Humup* Waitseroa; eta *Nire balentria* Frantziako zirkukoa. Eta, azkenik, *Gertatzen ez diren gauzak* dira Gari hillbilly-country kantu bat abesten entzutea. ■

Beñat Achiary Joseba Irazoki Julen Achiary

BAS(H)OAN

CD

DELOREAN

Mikel Laboa



CD / LP

Rafa Rueda
HIRI KRISTALEZKOA

CD

www.elkargitaletxea.eus

elkar

Izaera handiko poetak

AUTOBIOGRAPHIKAL

Non: Zarauzko Putzuzulo gaztetxean.

Noiz: 2017ko azaroaren 12an.

Protagonistak: Ane Zubeldia eta Eider Perez.



Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

ARGAZKIA: TOLOSALDEKO ATARIA.



Azaroaren 25ean Ibarra gaztetxean egin zuten Autobiographical emanaldia.

Igandea da, eta gaua egin da arratsaldeko sei eta erdietarako. Eskuak poltsikotan daramatzagu, “joder, hau hozta!” errepikatzen ilaran. Gutako batek esan du sei eta erdietan zela zazpi eta erdietan hasi den emanaldia, eta gero zain egongo ginela jakin izan bagenu, ez genuke hain bizkor eramango pausoa Putzuzulo inguratzen duten eraikin erautsien artetik.

Ez zen nire lehen aldia, aitortzen dut. Putzuzulo zapaltzen nuena bai (ez zen gogo falta), baina ez *Autobiographical* ikusten nuen estreinako aldia. Poesia antzerkitua esaten diote. Eta antzerki poesiatua. Bi lagunek Gasteizko unibertsitate giroan sortutako ikuskizun bat. Literaturaren ertzetan dabiltzan lagun bi. Behin irratan izan ziren eta hala esan zuten: “Literatur munduan ez baduzu zuk zerbait sortzen zaila duzu aritzea”. Ane Zubeldia eta Eider Perez dira, eta poesia zale dira azkenean arte.

Jarri gara plastikozko Mahou aulki gorrietan, berokiak erantzit gabe, eta hasi

da emanaldia. Aurreko ilunpean gaude noiz argibideak eman dizkigute –bertsotan bezala, poema bakoitzaren ostean txalotzeko, arren, adibidez–. “Izaera handiko poetak” datozela diote, haien poemak hartu, moldatu, itzuli, eure egin dituztela. Bazterreko emakume poeten ahotsak bere egiten dituzten emakumeak direlako eurak ere, hortik izenburua. Horretarako nortzuk diren, zein uste diren, poesia errezitaldiak modan ez ote dauden, itaunketa hasi da. Perezek: Eta zu nor zara niri hainbeste galdera egiteko? Zubeldiak, gaizto: Ni? Autokritika.

Ahotsez eta gorputzez bete dute eszena. Eta bete dute indarrez, freskotasunez, konplexurik gabe, goxo eta gazi. Tonu hori da, hain justu, emanaldia irribarre txikiarekin jarraitzea eragin didana. Hiru bloketan zatituta dago: ispiluak, egunkariak, hezurak; eta musikak laguntzen du bakoitza zabaltzen. Lesbosen Safo eta Itxaro Borda parez pare denboran, eta Banira Giriren *Katmandu* poema Euskal Herriarekin or-

poz orpo. Emakume historikoak gogora ekarri dituzte, eta Alejandra Pizarnik egunerokotik lerro lazgarri batzuk erreskatatu. Poeten inguruko azalpen txoak eta gomendioak tartekatatu dituzte, eta sentsazioa daukat, apar zerbitzatu berria nola, gora doala emanaldia. Hala, intentsuena da niretzat azkena, hezurrena: Mari Luz Estebanen *Eska-pa-n*, Gioconda Beliren *Algunos poetas*, Eunice de Sousaren *Emakumeei aholku bat*, Maria Merce Marçalen *Dibisa* eta Cristina Perez Rossiren *Vienes fabricada*. Azken hau entzuleon bizkarretik garrasika bota du Zubeldiak eta bularrean ostikada baten pareko jaso dut.

Izango da urtebete lehenengoz ikusi nuenetik, eta pozten nau, asko, emanaldia mugitzen joan dela jakiteak. Abisatu zidaten, ez da lehengoa, aldatu dituzte zenbait gauza. Eta baietz diot, apur bat hotzago utzi ninduela aurreneko aldi hark. Eskuak berriz patrikan, izaera handiko poemen oihartzunak kaskezurrean, etxera eramango gaituen trenerako bidea hartu dugunean. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Bizkaiko emakume idazleak

JAUNTXO KAZKA- BARRA, TXINGORRA	JAIETAKO IBILDIA BILBOKO OKUPAZIO MUGIMENDU	DAUKA ZINEMA	ESPAINIAKO ESTATUKO NORTASUN AGRIA ZITZADA	ARRANTZA EGITEKO METALEZKO TRESNA	ITSUSI HARRIDURA	MEATZE HOGEI BIDER BI
ZORROTZ, ARGI ②	LANDAREARI ADARRAK EBAKITZEA INTSEKTUAK	① LUKI	JAUZI, SALTO IGARRI, ANTZEMAN	LUR ILUNAREN KOLOREKOA ENTZUTEN DUENA	NONGO ATZIZKIA (ALDERAN- TZIZ) ARERIOA	
KILOA XAKEKO FITXA	JANTZI MOTA ZABALA BAINO LUZEA- GOA DENA	... JAUREGUI, EABRO ABESLARIA ③	④ IHAR	KARTA-JOKO USO AR	BEGIRUNEA MEREZI DUENA	
KUIA	FRANTZIAKO GAZTA MOTA APIAKO HERRITAR	NEKATUZ HARAGIAREN MINTZA (AL- DERANTZIZ)	POTKA ROENTGEN	ALAITASUNEZ OXIGENOA	URANIAO MODU ATZIZKIA	
ITALIAKO IBAI NAGUSIA TUNISIAKO MONETA	⑤ ARGIBIDE	LORE ZAIN- TZAILE				

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① Miren Agur..., Lekeitioko idazle hau batez ere poesian eta haur eta gazte literaturan da ezaguna, baina beste genero batzuk ere landu ditu. 2013an helduentzako bere lehen nobela idatzi zuen, *Kristalezko begi bat*. Hainbat sari jaso ditu, besteak beste Euskadi Saria hiru aldiz *Itsaslabarreko etxea*, *Urtebete itsasargian* eta *Errepidea* gazte-nobeletan eskertu. Euskaltzain urgazlea da 2006tik.

② Irati..., Mundakan jaiotako idazle honek 2002an argitaratu zuen lehen lana, *Malcolm X, Duintasunaren Kolorea*. 2006an, Agustin Zubikarai saria irabazi

zuen *Bat, bi, Manchester* eleberriarekin. Azken lanak Txalapartarekin egin ditu: *Atsekabe zaitut* narrazio ilustratua, *Telezailak* liburuan saiakera laburra eta *Orgasmus* bildumarako ipuin erotikoa.

③ Arantza..., idazleaz aparte, musikaria, marrazkilaria, publizista eta zinemagilea da. Umeei zuzendutako liburu ugari kaleratu ditu. 2010ean berak idatzi eta zuzendutako *Zigortzaileak* filma aurkeztu zuen Donostiako Zinemaldian.

④ Laura..., Lizarran jaio zen baina txikitatik Bizkaian bizi da. EHU-n dihardu, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasle. Bost eleberriz plazaratu ditu: 1985ean

Azkue Eleberriz Saria irabazi zuen *Bai... baina ez*, *Legez Kanpo*, *Nerea eta biok*, *Sisifo maite minez* eta *Ecce Homo*, oraindik ere azken nobela.

⑤ Alaine..., Bermeoko idazle honek haur literaturan zenbait ipuin argitaratu ostean, 2014an helduentzako bere lehen eleberriz kaleratu zuen, *Odol mamituak*, berak izandako gaixotasun mentalak dituen oinarri. 2016an Zilarrezko Euskadi Saria jaso zuen *X hil da* helduentzako bere bigarren lanagatik, eta iaz Joseba Jaka beka jaso zuen aurten kaleratu duen *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* eleberriz idazteko. Aurten bere lehen poesia liburua kaleratu du, *Txorriak etortzen ez diren lekua*.

Ebazpenak

F			D		K		P		L		B		K
R	A		I	P	A	B	E	K	I		A	B	A
O	G		N	O	L	A	O	I	M		Z	O	L
G	I		A	A	R	R	I	E	N		A	Z	
A	R		R	A	K	A	E	R	E		U		D
	R			M	I	T	L	A	T		I	Z	
L			U	S		A			S		N		N
O	A		S				M		Z		A		A
R	E		U	Z		T	I		A		A		A
E	Z		A										Z
Z	A		K										
A	I		K										
I	N		U										M

Assa Traore. Egia azaleratzen



Frantziako poliziaren bortizkeriari buruzko egia itzaletik ateratzea lortu du Parisko hiri inguruan bizi den Assa Traorek, senideak, adiskideak eta aliatuak dituela ondoan. Iazko uztailaren 19an hil zitzaion auzoko jendarmerian Adama anaia. Orduz geroztik, oztopoei aurre eginez, heriotza horri buruzko egia azaleratzen dabil. Baina harago doa: “Borrokan gabiltza duinki bizitzeko eskubidearen alde”.

“Anaia hil zen beltza zelako, Adama Traore deitzen zelako, langile auzokoa zelako”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Poliziak hala erabakirik

“Iazko uztailaren 19an, nire anaiaren heriotzaren berri ukan bezain laster bagenekien hil zigutela. Poliziaren bortizkeria indartsua da Frantzian, diziplinagabea dugu polizia. Egun horretan erabaki zuten Adama hilko zutela. Nortasun agiria eskatu zioten baina berekin ez ukanki, ihes egin zuen, bazekielako paperik ez denean galdeketatik bortitzagoa izaten dela”.

Poliziaren eskuetan hil zaizue anaia.

Interpelazioa bi denboratan egin zuten. Lehenik kalean, bortizki jo zuten. Bere burua zaintzeko, hortik hurbil bizi zen lagun baten etxera joan zen ihesi. Jendarmeak apartamentura sartu eta bortizki segitu zuten. Sabela zolaren kontra, jendarmeak bere gainean zituen, 250 kilo orotara. Jakina da sabelaldeko plakaketa teknika horrek %90ean heriotzara daramala. Hainbat herritan debekaturik dute. Egun horretan erabaki zuten Adama hilko zutela. Autora sartu zuten, bere gainean pixa egin zuen, hantsa ezin harturik, trenputxarturik. Ospitalea 200 metroan zuten, baina bost minutura zegoen jendarmeriara eraman zuten. Adamari lehen artak eman zizkietela erran ziguten; gezurra zela argitu genuen laster, suhiltzaileek eta larrialdiko medikuntza zerbitzuak errandakoari esker. Ofizialki 19:05ean deklaratu zuten nire anaiaren heriotza.

Gezurrez josia da jendarmeen bertsioa, hortaz.

Adamaren ama jendarmeriara joan zen

21:00ak aldera. Bere semeak alditxar bat ukan zuela entzun zuela erran zien jendarmeei, eta haiek ezetz, semea ongi zegoela, baina berantegi zela ikusteko. Poliziaren bortizkeria ezagutzen duten amek dioten esaldi bat erantzun zien: “Semeari zerbait gertatu bazaio, zuen aurkako salaketa jarriko dut”. Adamaren heriotza alkohola eta drogaren eraginaren eta infekzio baten ondorioa zela zioten. Hori dio Yves Jannier Versailleseko prokuradoreak. Autopsia eskatu genuen. Hortik hiru egunera, prokuradoreak azalduko baiezatu zigun autopsiak.

Bigarren autopsia eskatu zutenen.

Jakin behar da lehen autopsiaren eguneari Cergy Pontoiseko prefekturara deituak izan ginela. Prefetak eta beste pertsona batek errezibitu gintuzten. Konfesio musulmanekoak ginela eta gorpuak heriotzaren ondoko hiru egunetan ehortzi behar izaten direlako, Air France eta Roisyko aireportua kontaktaturik, gorpua biharamunean Malira joan zitekeela erran ziguten, gehituz



Baionan izan zen Assa Traore urrian, 'Lettre à Adama' liburua aurkezten. "Nire anaia kriminalizatu nahi izan dute, guk sinbolo bihurtu dugu". Iritzi publikoa alde dutela jakiteak Adamaren senideei aitzina segitzeko indarra ematen diela dio Traorek.

pasaportetik ez zutenei pasaporte bat emango zitzaiela. Fermuki errefusatu eta bigarren autopsia bat exijitu genuen. Horretan agertzen da Adama ez dela infekzio larri batengatik hil, ez eta alkohola edota drogaren eraginpean, baina bai itolarriz. Uztailaren 22an, Adama itomenez zendu zela berretsi ziguten aditu independente batzuek.

Kasua argira ekartzea lortu duzue.

Iritzi publikoa gurekin dugu, Adamaren aferak jendea biltzen du. Gure aldarria langile auzoaldeetarik harago doa eta hori trabagarri zaie. Errabia, erreprezioa eta umiliazioa pairatzen dugu. Gerotzik bi anaia preso ditut, nire kontra ere auzia jarri nahi izan zuten. *Lettre à Adama* liburuan dena kontatu dugu. Basakeriaren heina gure mobilizazioaren heinekoa da. Nire anaia kriminalizatu nahi izan dute, guk sinbolo bilakatu dugu. Polisiaren bortizkeriari doakioenez, auziak artxibatzeke makina bat da Frantzia. Uztailaren 22ko egia plaza-ratzerik ez zuten nahi eta horretarako gintuzten isilarazi behar.

Adamaz harago doa.

Ni ez naiz militantea, Adamaren arreba gisa ari naiz. Espero dut Adamaren familiakoon ahotsak gauzak aldaraziko dituela. Baina ezin dugu guztia bakarrik aldatu, borroka hau kolektiboa da. Frantziaren ezinegonaren isla da Adamaren aldeko borroka.

Nola azaltzen duzu polizia-bortizkeria hau?

Esklabotzaren garaira itzuli behar da ulertzeko. Frantziaren kolonialismoa ere hor da, oraindik erroturik. Ez baduzu larru kolore egokia, ez zara pertsonatzat hartua. Nire anaiaren aldeko borrokaren bidez logika hori dugu gainazpikatu nahi.

Zer diozu Frantziako Justiziaz?

Ez dugu nire anaiarentzat soilik justizia nahi. Frantziako Justiziak bere ardurak hartzea nahi dugu. Adibidez, geldiarazte teknika horiek debekatu behar ditu. Nola erabiliak dira teknika horiek, jakinda heriotzara daramatela? Frantziako jendarteak eta estatuak gure auzoei doa-

kionez errealitate eta fantasma horiek eraiki dituztelako hil zen Adama. Nire anaia hil zen beltza zelako, Adama Traore deitzen zelako, langile auzoaldean bizi zelako. Borrokan gabiltza duinki bizitzeko eskubidearen alde, egunean bost aldiz kontrolatua izan gabe bizitzeko eskubidearen alde. Jendetasuna lapurtzen digu poliziak, auzora sartzen delarik.

Nahiz eta orokortasunik ezin den egin, nola ikusten duzu auzo horietako garteria?

Haserre eta desesperaturik. Aurrekoan Bordelen nintzen eta gazte baten haserre garrasia entzun nuen. Erantzun nahi nion entzuten nuela, baina ezin genuela amore eman. Borrokan segitu behar dugu, gaur egungo eskubideak lortzeko batzuk borrokatu eta hil badira, guk ere berdina egin behar dugulako, bihar beldurrik gabe bizi gaitez. Frantziak gorapatzen dituen askatasuna, berdintasuna eta senidetasunaren printzipioak gureganatu behar ditugu. ■



Hoteleko garbitzailea Confebaskeko burua bultzadizo betean harrapatu ondoren.

Confebaskeko buruzagi bat harrapatu dute hotel batean EAEko aurrekontuarekin "jarrera lizunean"

"Ez da ematen duena" esplikatu zuen Rigoberto Larraingaina patronaleko buruak joan den astean, garbitzaile bat sartu zenean ostatua hartua zuen bost izarreko hoteleko gelara. Han ikusitakoa kontatu dio Beranduegiri bere izena eman nahi ez duen hoteleko langileak: "2018ko Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak zamalkatzen ari zen, jo eta jo, hatsanka, oso modu basatian.

Ikusi ditut zakurrak grina gutxiagorekin larrutan". Aurrekontuaren gurasoak diren alderdi politikoak kezkatuta agertu dira Confebaskeko buruaren jarrerarekin, baina ez dute salaketarik jarriko: "Gauza hauek gertatzen dira. Badakigu gure aurrekontua oso erakargarria dela Rigoberto bezalakoentzat. Espero dugu aurrerantzean bere kemena pixka bat baretuko duela".

SAREAN ARRANTZATUA

Betaurrekoak behar dituzte Mangon



Zer ari da pentsatzen Joseina?




Erne!: Durangon erosiko duzun Pirritx eta Porrotxen diskoa ez da aurtengoa, datorren urtekoa baizik

Ezustean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots barre faktoria ospetsuak 2018ko bideoa atera du aurtengo Durangoko Azokarako, 2017koa beharrean. "Ene, hau despistea!", adierazi du Ekhiñe Katxiporreta pailazo maitagarrien managerrak, hutsegiteaz galdeturikan. "Badakizu, ekoizpen erritmoa oso handia dugu eta ez da harriztekoa halakoak gertatzea, abisatuta neukan honela segituz gero noizbait urtez pasako ginela". Dena den, lasaitasun mezua helarazi diete taldearen fan ugariei: "Datorren

urtean 2017koa kaleratuko dugu eta kito". Landako... barka, landuko duten tematika oraindik ez dute guztiz erabakita, baina badituzte ideia txit eder eta aurrerazale batzuk. Katxiporretaren esanetan, "bi izenbururen artean zalantzaz gaude, *Amatxok zakila du, eta zer?*, eta *Droga guztiak legezko*".

Salgai duten 2018ko bideoak, *Borborean*, aginteaz eta botere harremanez dihardu. Umeek ez dute tutik ulertzen baina diotenez arrakasta handia izaten ari da Gasteizko Gaztetxe parrandetan.



Aurpegi hau geratu zaie Katxiporreta Enean hutsegiteaz ohartutakoan.

euskadi.eus

Enplegua, etxebizitza, laguntzak,
bekak, diru-laguntzak, informazioa,
parte-hartzea, gardentasuna eta
askoz ere gehiago, edonoiz, edonon
eta edozein gailutatik

**Zure euskal
administrazio
publikoa eskura**



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com